



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**FILOLOGIA, GEOGRAFIA ETA HISTORIA
FAKULTATEA**

***URBINA ETA URRUNAGAKO
TOPONIMIA***

PATXI SALABERRI MUÑOA

GASTEIZ, 1.986

U R B I N A E T A U R R U N A G A K O

T O P O N I M I A

PATXI SALABERRI MUÑOIA

ZUZENDARIA: RICARDO CIERBIDE

FILOLOGIA, GEOGRAFIA ETA HISTORIA FAKULTATEA.

GASTEIZ.

AURKIBIDEA

S.	SARRERA	5
S.0.	Zenbait hitz sarrera gisa	6
S.1.	Azterturiko eremua:	
	Urbina eta Urrunaga	7
S.2.	Motibazioak	9
S.3.	Helburuak	10
S.4.	Metodologia	11
	S.4.1. Toki-izenen bilketa	12
	S.4.1.1. Dokumentazioa ...	12
	S.4.1.2. Ahozko bilketa ..	15
	S.4.2. Lurralde-ikusketak	19
S.5.	Azalpena	19
	S.5.1. Erizpideak	20
	S.5.2. Ortografia	22
S.6.	Laguntzaileak	26
S.7.	Laburdurak	27
1.	LURRALDEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK	31
1.1.	Geografia fisikoa	32
	1.1.1. Orografia	32
	1.1.2. Hidrografia	33
	1.1.3. Klima	35
	1.1.4. Paisaiaren aldaketa	35
1.2.	Geografia ekonomikoa	36

1.2.1.	Industria	36
1.2.2.	Nekazaritza	37
1.2.3.	Abeltzantza	39
1.3.	Zenbait ohar Historia eta Giza-Geografiari buruz	41
1.3.1.	Ezaugarri orokorrak	41
1.3.2.	Populaketa	44
1.3.3.	Demografia	44
1.3.4.	Euskararen egoera	48
	1.3.4.1. Historian zehar ...	48
	1.3.4.2. Hiztunak	51
	1.3.4.3. Euskara moeta	52
2.	URBINAKO TOPONIMOEN ZERRENDA	54
2.1.	Toponimia nagusia	55
2.2.	Toponimia xehea	57
3.	URRUNAGAKO TOPONIMOEN ZERRENDA	116
3.1.	Toponimia nagusia	117
3.2.	Toponimia xehea	117
4.	EUSKAL TOPONIMOEN SAILKAPENA	184
4.1.	Orografia. Oronimia	185
4.2.	Mineralogia	187
4.3.	Hidrografia. Hidronimia	188

4.4.	Flora	1189
4.4.1.	Izen generikoak	189
4.4.2.	Zuhaitzak	190
4.4.3.	Landareak	191
4.5.	Fauna	191
4.6.	Giza-bizitza	193
4.6.1.	Pertsonak.	
	Lanbideak. Gaitzizenak.	193
4.6.2.	Onomastika	193
4.6.3.	Eraikuntzak. Lantokiak.	
	Erljio-sinboloak	194
4.6.4.	Komunikabideak	195
4.6.5.	Mugak	196
4.6.6.	Nekazaritza	197
4.7.	Tokitasun-adierazleak	198
4.8.	Ugaritasun-adierazleak	202
4.9.	Besterik	203
4.9.1.	Izenondoak	203
4.9.2.	Zenbatzaileak	204
4.9.3.	Atzizki txikikariak	205
4.9.4.	Deklinabidearen kasu-markak .	205
4.9.5.	Bestelakoak	206
5.	TOPONIMOEN AURKIBIDE OROKORRA	207
	BIBLIOGRAFIA	224
	ERASKINA	231

S : S A R R E R A

S. SARRERA

S.O. Zenbait hitz sarrera gisa

Aski da Euskal Ikasketen eremuari gainbegirada bat ematea gure urritasunak zeintsu diren jakiteko. Egia da, halere, eskasiak ez gaituela aberastasunik gabeko lanetara behartu, zorionez nagusi bait dira ikerketa on eta sakonak.

Badirudi, bestalde, gaur egun ia bazterturik aurkitzen direla (gure egoeraren premia larriengatik edo!) oraintsu arte begirunez aztertu diren zenbait ikerketa-arlo. Hau da, hain zuzen ere, Toponimiaren kasua.

Egia aitortuz, erraz da ulertzen moeta honetako ikerketek arrakasta gehiegi ez izatea; nolabait esateko, dagokigun arlo honetako lanak beste munduko zailtasunik ez badu ere, ardura luze eta berezia eskatzen du. Izan ere, datu edo corpusaren interpretapena zaila bada, corpusa bildu eta osatzea ez da betarik gabe egiten den lana.

Horregatik, metodologia egoki batek eskatzen duen bezala, bi alderdi hauen bereizketa egiterakoan

(batetik biltzaileek egin dezaketen lana eta, bestetik, lan horietan oinarriturik hizkuntzalariek datuak interpretatzen egin dezaketena) ez gara inolaz ere aldendu orain arte eraman izan den praktikatik.

Aurrekoa abiapuntutzat harturik, eta interpretapen lanetarako jendea sobera ez dagoela jakin arren, aitortu beharrekoa da badela bilketa lanetarako ikerketa munduan sartu berria ezezik oraindik sartuta ez dagoen zenbait jende, horrelakoetan, hizkuntzalari-tzarekiko lehendabiziko harremanak lortzeaz gain, nahi ko probetxagarriak izan daitezkeen emaitzak eskain ditzakeena.

Biltzaile horien artean kokatu beharko litzateke, azken batean, lan hau burutu eta aurkezten duenaren gogoia.

Har bedi lan hau, beraz, den bezala: Euskal Toponimiaren arloan agian akatsez -nahi gabe beti!- zipris tinduriko haren garautxotzat.

S.1. Azterturiko eremua: Urbina eta Urrunaga

Legutio osoa aztertzeke asmotan hasi baginen ere, egokiago eritzi genion zatika eta sistematikoki egiteari, leku-izenak galtzeko arrisku handiago dagoen tokitik hasita.

Horregatik, lehen pauso gisa, Legutioko udalaren

barnean dauden Urbina eta Urrunaga herrietara mugatu genuen honako Memoria honen eginkizuna.

Nolanahi ere, mugapen hori ez litzateke guztiz zehatza ohar pare batez hornituko ez bagenu.

Aztergaiak, bai, Urrunaga eta Urbina herrien lurraldeak dira, baina administral geografiaren hutsak kontutan harturik, zabaldu egin dugu ikergai zen eremua Luku aldeko lurralde zati bat ere geureganatuz. Arrazoi bakarra geografia fisiko-ekonomikoan datza: Lukukoak izan arren, lur horiek Urbina aldera eta bertakoen aprobetxamendurako geratzen dira, mendiek administral egituraketaz zerikusirik ez duen mugapen naturala egiten dutelarik.

Bestalde, aurrekoari funts ofizial berezi bat emanaz, esan dezagun administral erakundeek "concentración parcelaria" izeneko lur-bilketa burutzeko erabili zuten erizpidea guk erabilitako berbera dela, Lukuko lurralde horiek Legutiokoekin elkartu bait zituzten.

Eranskin gisa doazen mapetan ikus daiketeenez, beraz, azterturiko lurraldea Urrunaga, Urbina eta Lukuko zati batetara hedatzen da, herri hauei Albertia mendian dagokien azalera kontutan hartu gabe, izatez Legutio herriarena bait da.

S.2. Motibazioak

Hautaketa honetan era askotako arrazoiak izan ditugu eragingarri; halere, Toponimia arloan interes objektibo handia dutenak bakarrik aipatuko ditugu.

Alde batetik, euskarak Araban emandako atzerakadaren muga geografikoan aurkitzen diren herriak ditugu Bilerlekoak. Egoera honen ondorioak larriak baino larriagoak badira ere, Toponimiari buruz mintzatzean honako hau adierazi beharko genuke:

a) mendez mende eta ahoz aho euskararekin batera irakatsi eta ikasitako euskal toki-izenek, erabat inposaturik dagoen gazteleraren eraginez galtzear egon arren, badutela oraindik ere nolabaiteko bizitza,

b) euskara guztiz arrotza ez zaien hiztunek erabilibili egiten dituztela, eta

c) nahiko lekukotasun garbia aurki daitekeela ebaikitzen dituzten izenetan.

Bigarrenik, inori ez zaio ezkututzen lurralde honetan ematen ari diren aldaketa eskerga hauek (urtegia, industria, errepideak, lur-bilketa, ...) paisaia desitxuratzeaz gain, toki-izenen galera dakartela. Behar beharrezkoa dugu, beraz, toponimoak lehenbailehen jasotzen hastea, galdutzat eman nahi ez baditugu behintzat.

Azkenik, bada azterketa honetara bultzatu gaituen

arrazoi historiko aipagarri bat ere, lurralde honetako herriak (despopulatuak ahaztu gabe) XI. mendean Done-miliagako Kartularioan azaltzen direlako alegia. Dokumentuaren aintzintasunaz aparte, interesgarri deritzogu herrien kokapenari, guri dagozkigunak, hain zuzen ere, Kukulako Monastegiak bere babesean zituen herrietatik iparralderantz zeuden azkenak bait ziren.

S.3. Helburuak

Geure lanari jarri diogun helburu nagusia leku-izenen bilketa sistematikora mugatu da. Xedeak apal eman dezakeen arren, ahalegin guztiak egin dira ahalik ongien burutzeko.

Aurrerago ikusiko denez, bilketa hori arlo desberdinak aztertuz lortu da. Xehekiago esateko, bi eratako iturriz baliatu gara: bizilagunek belaunaldiz belaunaldi transmititurikoa jasotzen (ahozko bilketa) eta mota guztietako dokumentuak aztertzen.

Azken finean, azterketa honen emaitzak, onak diren neurrian, beste helburu batzuren zerbitzura makurtu beharko direnez gero (hizkuntz berreraikuntza, historia, etab.), aski izango litzaiguke sistematikoki jasotako corpus bat eskaini ahal izatea, interpretazio lana berentzat edota beste lanetarako utziz.

S,4. Metodologia

Ikerketa gehieneko metodologi erizpideak etengabe aldatuak izan ohi badira ere, ez dirudi beste zenbaite tan funtsezko aldaketan beharrik dagoenik. Hau da, esate baterako, bilketa-lanetan gertatzen dena: sistemati zazioaz aparte, biltze-prozesu koherente bat besterik ez da eskatzen.

Toponimiaren azterketan erabili dugun metodologi- ari dagokionez, ezagunak dira Vinson-ek euskal toponi- miaren ikerketa sistematikoen hastapenetan idatzi zi- tuen hitzak:

Le basquisant qui voudrait entreprendre l'in- ventaire de ces communes n'aurait qu'à se transporter dans chacun d'elles avec un gros paquet de fiches, interroger les habitants, compulser les papiers ou les registres muni- cipaux, dépouiller les listes du cadastre; (...); le travail terminé, il n'y aurait plus qu'à uniformiser l'orthographe et classer les mots en deux ou trois séries (1).

Harrezkero ez dira gutxi izan metodologia egoki batez mintzatu diren hizkuntzariak (2), gehienak ildo beretik abiatu diren arren.

Gure metodologia, ondorioz, ez da bestek markatu-

(1) VINSON, Julien, "Importance des noms topographiques", RIEV 3, 1909, 356 or.

(2) Ikus bitez, besteren artean, J. Corominas, K. Mitxe lena eta R. Zierbideren lanak.

riko bideetatik aldentzen. Labur bilduz, hauxe da guk erabili dugun erabidearen mailaketa:

- . Toki-izenen bilketa (bai artxiboetan, bai bizi-lagunen ahotik).
- . Toki-izen horiek adierazten dituzten lekuen ikusketa.

Leku-izenen bilketari dagokionez, garrantzi handia eman diogu ahozko kontsultari, hau bait da, hain zuzen ere, gaur egun erabiltzen diren izenak nola ebakitzen diren jakiteko modu bakarra. Bestalde, balio handikoa da bilketa moeta hau dokumentaturik dauden toki-izenen artean zeintzu izan diren baztertuak, ahaztuak edota aldatuak jakiteko, interpretatzeko eta, ahal den neurrian bederen, lekutzeko, asmatu berriak diren izenak ezagutzeko eskaintzen digun aukera ezin hobea ahantzi gabe.

S.4.1. Toki-izenen bilketa

S.4.1.1. Dokumentazioa

Arlo honetan erabili dugun materialea ez da, tamalez, guk nahi izan genukeen bezain aberatsa izan. Arrazoi nagusia, besterik ukatu gabe, Legutioko herriek jasan zituzten erreketak bietan datza.

Dokumentaturik dugun lehena 1836.eko Maiatzaren 25-26an gertatu zen eta orduko idazkariek adierazten dutenez, ez zen fitskeria bat izan:

y no se ha podido poner esta circunstancia en el antiguo (liburuan) de hipotecas de Villa real ni en la matriz por haberse quemado los papeles de la escribanía en el incendio y saqueo que sufrieron los habitantes de Villa real durante la guerra en los días veinte y cinco y veinte y seis de mayo de mil ochocientos treinta y seis (3).

Nolanahi ere, lehenengo errejeta gogorra izan bazen, bigarrena ez bide zitzaion atzean geratu, 1875.eko Uztailaren 30ean hirurogeita hemeretzi etxe erre bait ziren lurralde honetan (4).

Erreketa hauek, zorionez, ez zuten dokumentazio guztia errautsi. Legutioko Udaletxeak, esaterako, badu azter daitekeen dokumentazio interesgarria.

Harriagarria da, bestalde, bertako elizek duten dokumentu falta. Dagoen dokumentazio apurra berria eta Toponimiarako baliorik gabekoa da. Gauza bera esan genezake Elizbarrutiko Artxiboari dagokionez, ia ez bait dago Legutioko elizen aztarnarik.

Azken finean, aurkitu eta aztertu ahal izan ditu-

(3) Artxibo Historikoko "Registro de hipotecas de la Jurisdicción de Villarreal que principia el año de 1837 y concluye en 20 de Noviembre de 1854", 180 or.

(4) Probintzi Artxiboa, D. 436-26.

gun dokumentuak honako artxibo hauetan daude banaturik:

- . Artxibo Historikoan (Protokoloak eta hipotekak batez ere),
- . Probintzi Artxiboan,
- . Legutioko Udal Artxiboan (moeta guztietako dokumentuak) (5),
- . Elizbarrutiko Artxiboan (bizpahiru dokumentu interesgarri) eta
- . Arabako Foru Ahaldundiko Katastroan.

Dena den, dokumenturik interesgarrienak, zedarriztaketak, katastroak eta soroen zerrendak alegia, Arabako Artxibo Historikoan eta Legutioko Udal Artxiboan aurkitu ditugu.

Azpimarragarri dira, azkenik, dokumentu askotan azaltzen diren huts eta akatsak. Ohizko eskribauak / idazkariak kanpotarrak zirelako edota euskara arraroa egiten zitzaielako, maizegi, euskal luku-izenak idazterakoan, desitxuratu egiten zituzten. Hau da, esate baterako,

(5) Artxibo honetako Katalogoan agertzen diren datak eta dokumentu moetak ez datoz beti bat errealitatearekin. Katalogazio lana presaka eginda dagoela dirudi, ez bait da ulertzen, bestela, behar bezain zehatza ez izatea. Askotan, dokumentu bakartzat agertzen diren batzuk beste motatakoak daramatzate erantsirik.

Hori dela eta, zenbait toponimoren data katalogoan azaltzen diren dokumentuenaren guztiz bestelakoa da.

1854-1862.eko Hipoteka-liburuari (Artxibo Historikoan) beranduago egin zitzaion aurkibidearen kasua. Liburuan zehar azaltzen diren zenbait toponimok berez mesfidantza sortarazten badigute, zer esanik ez dago aurkibidean daudenak aztertzen ditugunean: jatorrizkoekin duten antza kasualitateari egotz dakioke.

Moeta honetako leku-izenak ezin dira (eta ez ditugu) inolaz ere aintzakotzat hartu.

Bestalde, maizegi ez bada ere, zenbaitetan dokumentuak idaztean guztiz ahaztuta zeuden leku-izenak agertzen dira eskribuetan. Honen arrazoia, eskribauek dokumentu zaharretatik berrietara egiten zituzten hitzez hitzezko kopietan bide datza.

Azkenik, arlo honetan erabili dugun erabideari dagokionez, esan dezagun dokumentuak arakatu ondoren izen eta aldaki guztiak fitxetan bildu ditugula, agertzen ziren zehaztasun eta datu interesgarrienez horniturik. Ahal izan denean, leku-izenak mapetan ezartzen saiatu gara, behin-behingo egiten genuela ahaztu gabe.

S.4.1.2. Ahozko_bilketa

Aztertu dokumentuetan aurkitutako toponimoak lagun, bigarren pausoari eman diogu hasiera: elkarrizketak. Horrela, lehen aipatu mapez baliaturik, behin-

behinean ezarritako leku-izenak finkatu eta beste batzuren ezarpena egiteko aukera izan dugu.

Dena dela, ahozko bilketarako bi era ezberdinez osaturiko mapak erabili ditugu. Haserako elkarrizketetan, lekuak izendatu ondoren, mapa zuritan koka zitzatela eskatzen genien elkarrizketatuei.

Bigarren txandan, hau da, dokumentu guztiak arakaturik genituenean, gaur egun agian erabili ez baina txikitandik ezagunak edota entzunak zituzten toponimoak gogora erazten saiatu ginen, dokumentaturiko toki guztien izenak esan ahala mapetan lekutuz. Jakina, bada horrela ahoratu zaien zenbait toponimo.

Elkarrizketatuak tokian tokiko zaharrenak ez bada direa ere, lurraldea ongi ezagutzen zuten fama ez zitzaien falta, jaiotzez bertakoak izateaz gain, gehienak nekazaritzan edo artzantzan aritu izan bait dira beti.

Ahozko bilketan jasotako emaitzei dagokienez, ohar gaitezen azken urteotan, hiruzpalau hamarkada hauetan alegia, izandako aldaketa geo-fisikoek duten garrantziaz, asko eta asko izan bait dira aldaketaren arauera galdu, aldatu edo desitxuratu diren leku-izenak.

Zenbait kasutan, bestalde, ebakiera eta hitz ezberdinez izendatu izan digute toki berbera.

Ezberdintasunak, halere, areagotu egiten dira zaharrek ahozkatzen dutenetik gazteen ebakieretara igarotzean.

Kasu aipagarrienen artean honako hauek aukeratu ditugu ezberdintasun horien arrazoia hobeto adierazteko:

- . Batzutan hotsen elkarketa zaila egiten zaielako edo, antzeko zerbait ahozkatzen dute:

SAMURGANA = SARMUGANA (Urbina)

ALMOKIZARRA > LAMIKOSARRA (Urrunaga)

- . Bestetan, euskal toponimoak ezer esaten ez die-lako eta esangura bilatzeko gogoaz nonbait, gaz telerazko hitzak erabiltzen dituzte. Hori bai, zentzua guztiz absurdoa izan arren, hots naba-rienak errespetatu egiten dira:

KATALINPERRA > KANTALAPERRA (Urbina)

- . Beste batzutan, jatorrizko izenak hiztunentzat zentzurik ez duelako edo, logika bat eta jatorrizkoarekin antza daukan izen berri batez izen datu ohi dute tokia:

IBARBALDEA > IBAIALDEA (Urbina)

- . Tokiaren aldaketa fisikoa eman denean (urtegia, errepedeak, ...) leku-izenak ere aldatuak izan dira askotan. Adibidez, orain urtegia dagoen lekuan SAGARMINAGA deituriko toki bat zegoen. Orain, aldiz, toki horrek uretan sartzen den mutur baten

antza daukanez gero, urtegia bete-beteta dago-
nean urez inguraturik geratzen da. Hortik da-
torkio zahar eta gazteek gero eta maizago era-
biltzen duten LA ISLA izena.

- . Gazteleraren nagusitasunak euskal hitz batzuren itzulpena dakar ondoriotzat:

BIKURI = BARRIO DE ABAJO

- . Ultrazuzenketak ere baditugu. Ondo irakurtzen zekiten adineko norbaitzuk, izenak ahozkatzera koan gehiago fidatzen ziren idatzirik ikusita zeukatenaz, eguneroko ebakiera arruntaz baino. Horrela, BAGUETA euskaraz / BAGUETA erdaraz esan beharrean, dokumentuetan BAGUETA (u gaine-ko punturik gabe) azaltzen zelako, BAGETA eusk./ BAGUETA erd. ahozkatzen zuten.
- . Aipa dezagun, azkenik, azentuazioak erakusten duen arazoa. Garbi baino garbiago egiaztatu du-
gu adineko elkarrizketatuak euskaraz mintzo di-
renean, toki-izenak Mendebaldeko euskal azen-
tuazioaren ereduak gordetzen dutela. Gazteleraz hitzegiterakoan, aldiz, hiztun berberak, min-
tzatzen diren hizkuntzara egokitzen dute. azen-
tua, Txillardegiren hitzak erabiliz, "errepara-
tu ere gabe" (6).

(6) Ikus TXILLARDEGI: Euskal azentuaz, Elkar, Donostia, 1984, 270 or.

Horrela, Sagárminà(gà) > Sagarmínaga izate ra pasatzen da.

Erdal hiztunen azentuak ez du inolako zalan tzarik aurkitzen, leku-izen guztiak erdal azen-tuazioaz ebakitzen bait dira.

S.4.2. Lurralde ikusketa

Egia esan, ikerketa honen hasieratik beretik ekin genion lurraldearen ikusketa egiteari, azken batean, ikusketa honen helburua ahal eta berezitasun gehienez ohartzea zen eta.

Gero, ikerketa aurrera zihoan neurrian, eta batez ere toki-izenak bildurik genituenean, ikusketa sistematikoago bati ekin genion, batzutan bertakoen laguntzaz. Modu horretan izenak adierazten zuen tokiaren gorabehera nagusiak ezagutu ahal izan ditugu.

Hala ere, esan beharrekoa da, azterturiko lurralde honek gaur egun ez dauka gorabehera handirik. Aurre rago zehaztasunez esango den bezalaxe, hemengo hau berez toki laua bada ere, bateratze partzelarioek eta, uniformeago bihurtu dute arestian berezi samarra zena.

S.5. Azalpena

Lan guztiek eskatu bezala, gureari ere azalpen zehatz, egoki eta argia eskainiko badiogu, zenbait

puntutan oinarritu beharko da. Ikus ditzagun, bada.

S.5.1. Erizpideak

Esan dezagun lehendabizi erizpide bateratzaile bat erabili dugula, administral mugak ahalik ongien kontutan hartuz, toponimoen zerrendak aurkezteko.

Praktikoago eta erabilgarriago eritzi diogu Urbinako toponimoak alde batetik eta Urrunagakoak bestetik emateari, denak batera emateak erakuts zezakeen sabakanatze huts hori gainditu nahian.

Gogoratu beharrekoa da toponimo bat baino gehiago bai Urbinan eta bai Urrunagan agertuko direla, bien arteko mugan aurkitzen bait dira izen horiek adierazten dituzten lekuak. Bestalde, Lukuko lurralde horrek Urbinakoen bizitzan duen garrantzia ahaztu ezinik eta egitura geografikoak horretara bultzaturik, Urbinako toponimoekin batera ezarriko ditugu Lukukoak diren apurrak. Dena den, azken hauek ohar bat eramango dute ondoan Lukukoak direla adierazteko.

Toponimoak alfabetikoki ondozkatuko dira, bakoitza dagokion herriaren zerrendan, jakina.

Aurrera eginik, esan dezagun bietako zerrenda bakoitzean sailkapen bikoitz bat erabiliko dela: Toponimia nagusia, batetik, eta toponimia xehea, bestetik.

Toponimia nagusia diogunean gaur egungo herri eta

herriska desagertuak edo "despopulatuak" adierazi nahi ditugu. Sail honen barnean izen ofiziala eta bertako bizilagunen ebakiera jarriko dira. Ondoren, izen horien aldaki dokumentatu guztiak ipiniko ditugu, dagozkien data eta zehaztasunez lagundurik.

Toponimia xehearen azalpenerako hona hemen, puntuz puntu, erabili erizpideak:

- . Izenburuetarako, dokumentaturiko forma zaharrenez baliatu gara gehienetan. Dokumentuetan toponimo berberen arteko ezberdintasuna nabaria zenean, maiztasunaren arauera jo dugu, maizen agertzen zirenak hobetsiz. Toponimo batek garrantzirik gabeko aldakiak dituenean, lanaren ordenak berak behartzen du haien arteko hautaketa arrazoizkoena egitera.
- . Zenbaitetan gaztelerazko forma arruntak bakarrik aurkitu ditugu. Esate baterako, "camino a", "camino de", "que va a", etab. Horrelakoetan, euskaraz agertu direnen ereduari jarraitu beharrean, gazteleraz jarri ditugu, izenburuak eta ordenazioa hobatzen genituelakoan:

CAMINO DE

- . Ondoren herri ahozkeraz ezarri dugu, ebakera guztiak kontutan hartuz. Logikoa denez, toki-izena ezezaguna gertatu denean ez da arlo honen beharrik

ikusi eta, ondorioz, ez da ezer idatzi.

- . Laugarrenik, dokumentaturiko toki-izenaren aldaki guztiak jarri ditugu, beharrezko data eta zehaztasunez lagundurik (dokumentuaren izena, zenbakia, orrialdea, etab.).
- . Azkenik, egoki iruditu zaizkigun oharrak eta deskribapenak eman ditugu.

Herri bietako toponimoak aurkeztu ondoren, leku-izen euskaldunen sailkapen berezi bat eman dugu lauzpa sei ardatz nagusiren inguruan.

Bukatzeko, jaso ditugun toponimo guztien zerrenda erantsi da, bakoitza zein orrialdetan agertzen den adieraziz. Zerrenda hau alfabetikoki jarri da.

Toponimo horiek eranskin gisa dauden mapetan ezartzerakoan, garbi bereizi dira erabiltzen direnak, gaur egun ezezagunak izanik dokumentuetan ematen diren zehaztasunen bidez kokaturik izan direnetatik. Lehenengoak, lekukoek egiaztatuak, azpimarratu gabe doaz, eta bigarrenak, zalantzazkoak, azpimarratuta.

S.5.2. Ortografia

Izenburuak finkatzeko (Toponimia nagusian zein xehean) Euskaltzaindiaren erabakiei jarraiki gatzaizkie. Hau da, esaterako, "v" guztien kasua, edota "g"arena, "gu", "j", "qu" eta beste batzurena ahaztu gabe.

Izenburuak idazterakoan, bestalde, kontutan hartu

dugu baita ere Mendebaldeko euskalkietan erregulariki bete ohi den araua, sonanteen ondoko frikariak afrikatu egiten direla dioena alegia: ARZA > ARTZA.

"H"ari gagozkiolarik, erizpide bikoitza erabili dugu. Toponimoen osagarriak garbi agertu direnean (harri, zahar, ...) "h"-a jarri badugu ere, zenbait kasutan (hitz fosilduetan eta) dokumentuetan erabili bezala utzi ditugu leku-izenak. Hona hemen, esate baterako, gehien agertzen den kasua: -behe > BE; adibidez, OLA-MENDIBEA, BIDEBEA, etab.

Osagarriak hain garbiak ez zirenetan, egokiago eritzi diogu aldaketarik ez egiteari, interpretatze lanetan sartzeaz gain handiagoak iruditu bait zaizkigu eragozpenak abantailak baino.

"C" grafemaren aurrean izan ditugun zalantzak horrela gainditu ditugu: Leku-izenak erdaraz agertu direnean, zeuden bezala eman ditugu (CAMINO DE URRUNAGA, etab.); erdal hitzak euskal toponimoak osatuz azaldu direnetan, berriz, euskal grafiaz jantzirik aurkeztu ditugu (KAMINALDEA, etab.).

Berdin jokatu dugu beste zenbait grafemarekin (EL POZO, etab.).

Biztanleen ebakera jasotzerakoan euskal grafiara jo dugu irakurketa errazago izango zela pentsatuz. Gaztelerazko hotsen baten grafiarik euskaraz ez dagoenean, arbitrarioki hartutako kideak erabili ditugu.

Hona hemen, laburtzeko, erabili ditugun zeinurik garrantzitsuenen taula:

<u>Gaztelerazko</u>	<u>Erabilitako</u>
<u>fonemak</u>	<u>grafemak</u>
/b/	b
/g/	g
/x/	j
/k/	k
/ɟ/	ill
/ŋ/	iñ
/r̄/	rr
/y/	i
/ç/	tx
/θ/	c

Gauza jakina da, bestalde, hemengo hiztunek ez dutela bereizketarik egiten frikari eta afrikatu hauen artean:

z = s = [s̺]

tz = ts = [c]

Sárrri askotan dokumentuetan azaltzen diren orto grafi-aldaketak edo akatsak idazleen ziurtasunik ezean dautza. Hau da, esate baterako, ondoko adibideen kasua:

V / B ren arteko nahasketa: BIORRA = VIORRA
 H / Ø ren artekoa: HURRUNAGA = URRUNAGA
 G / J ren artekoa: ELEGALDEA = ELEJALDEA
 GU/GU ren artekoa: BAGUETA = BAGUETA
 R /RR ren artekoa: URUNAGA = URRUNAGA
 T /TT ren artekoa: (H)ARRIETAGANA = (H)ARRIETTAGANA

Gehienetan dokumentuen egileek hitz hasieretan ez dute Y / I ren artean inolako desberdintasunik egiten:

YCHACORRECA = ICHECOERRECA

Batzutan, XVI-XVII. mendeetako dokumentuetan akats grafiko arruntak gertatzen dira; adibidez, "ç" idatzi beharrean, "c" idazten zuten:

CABALGANA (Urrunaga)

Esan dezagun, azkenik, aztertu ditugun dokumentuetan leku-izenak artikuluz zein artikulurik gabe agertzen direla:

LACUYBARRA = LACUIBAR

S.6. Laguntzaileak

URBINA:

José Beitia Ruiz de Azua	72 urte
Teodoro Morales Ormaetxea	77 "
Fernando Morales Uriarte	49 "
Teodoro Morales Uriarte	47 "
Alejandro Ormaetxea	57 "
Ramón Ruiz de Azua Beitia	76 "
Javier Torno Ruiz de Azua	52 "

URRUNAGA:

Saturnino Aretxaga	85 urte
Higinio Martínez de Luco	74 "
Eugenia Ortiz de Zárate	63 "
Andres Viteri Ajuria	78 "
(Denak euskaldunak !)	

Nolanahi ere, lan hau pertsona hauei eskerrak bu
 rutu den arren, ezin ditugu inolaz ere ahaztu zenbaite
 tan lankide izan ditugun lagunak, lana bideratzeko oha
 rrak eman dizkigutenak eta, jakina, Artxiboetako eta
 beste erakundetako atea ireki eta lanak erraztu diz-
 kigutenak. Guztiei gure eskerrik beroenak.

S.7. Laburdurak

A.: Apezpikutegiko Artxiboa.

A.H.: Artxibo Historikoa. Gasteiz.

BRSVAP: Boletín de la Real Sociedad Vascongada de
Amigos del País.

Cart.: Ubieta Arteta ikerlariaren Cartulario de San
Millán de la Cogolla. Ik. Bibliografia.

CSM: Serranoren Kartularia. TAV-etik jaso.

D.: Probintzi Artxiboan erabiltzen duten dokumentu-
zeinua. Ondoko zenbakiek dokumentuaren zenbakia
adierazten dute.

DESK.: Deskribapena.

DOK.: Dokumentazioa.

EBAK.: Ebakera, aztertu herrietako bizilagunek ahoz-
katzen dutena hain zuzen.

FITA: Bibliografian aipatu liburua adierazteko. FITA,
Fidel.

FLV: Fontes Linguae Vasconum.

HERG.: Narciso Herguetaren "Noticias históricas de
don Jerónimo Aznar, ...". López de Guereñuren
"Pueblos alaveses"-etik jaso. Ik. Bibliografia.

Hipo.: A.H.-ko Hipoteka-liburuak. Ondoko zenbakiak kronologikoki jarriak dira:

Hipo. 1: Registro de Hipotecas de la Jurisdicción de Villarreal que principia el año de 1837 y concluye en 20 de Noviembre de 1854.

Eskribaua: Geronimo de Larrosa.

Luburu-hatza: Hipotekas 406.

Hipo. 2: Libro 2º del Registro de Hipotecas que corresponde a la hermandad de Villare(al) y se compone de los pueblos siguientes: Elosu, Villa-rreal, Gojain, Urbina, Nafarrate, Urrunaga. Da principio en 20 de Noviembre de 1854.

Eskribaua: Cipriano García de Andoin.

Liburu-hatza: Hipotekas 407.

HK.: Hurrengoak, batez ere orrialdeak adierazteko.

IK.: Ikus.

LANDA: Landazuri y Romarate-ren Obras históricas sobre la provincia de Alava.

LUA: Legutioko Udal Artxiboa. Bertako dokumentuak bi sailetan banatzen dira: kutxetan daudenak (guk LUA-K laburduraz aurkeztu ditugunak) eta lokari edo paper-sortatan daudenak (LUA-L guretzat).

Ondoren doazen zenbakiak Artxiboak dokumentuen ordenamendurako erabiltzen dituen zenbaki berberak dira. Ik. bertako katalogoa.

LUA-K: Ik. LUA.

LUA-L: Ik. LUA.

m.: Metro(ak).

OHAR.: Oharrak.

or.: Orrialdea, orrialdeak.

PA.: Probintzi Artxiboa. Gasteiz.

Prot.: A.H.-ko Protokoloak adierazteko erabilia. Gauzak errazteko Protokolo bakoitzari zenbaki bat jarri diogu; hona hemen zenbaki horiei Artxiboan dagozkien zenbakiak eta idatzi zireneko urteak:

Prot. 1 : Zenbakia: 9112. Urtea: 1590.
 Prot. 2 : Zenbakia: 9113. Urteak: 1595-1596.
 Prot. 3 : Zenbakia: 9114. Urtea: 1598.
 Prot. 4 : Zenbakia: 9115. Urtea: 1599.
 Prot. 5 : Zenbakia: 9116. Urtea: 1601.
 Prot. 6 : Zenbakia: 9117. Urtea: 1619.
 Prot. 7 : Zenbakia: 9118. Urtea: 1622.
 Prot. 8 : Zenbakia: 9119. Urtea: 1624.
 Prot. 9 : Zenbakia: 9120. Urteak: 1629-1630.

Prot. 10: Zenbakia: 6525. Urtea: 1633.

Prot. 11: Zenbakia: 4338. Urtea: 1638.

Prot. 12: Zenbakia: 16.710. Urtea:
1667.

Prot. 13: Zenbakia: 9818. Urtea: 1831.

Prot. 13A: " Urtea: 1832.

Prot. 13B: " Urtea: 1833.

Prot. 14: Zenbakia: 9819. Urtea: 1835.

Prot. 14A: " Urtea: 1836.

Prot. 14B: " Urtea: 1837.

Prot. 14D: " Urtea: 1838.

Prot. 15: Zenbakia: 10774. Urtea: 1823.

RIEV: Revista Internacional de los Estudios Vascos.

TAV: Mitxelenaren Textos arcaicos vascos.

Ub.: Urbina.

Ur.: Urrunaga.

1 . L U R R A L D E A R E N
E Z A U G A R R I
N A G U S I A K

1. LURRALDEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

1.1. Geografia fisikoa

Aztertu dugun lurraldea Arabako Gorbeialdea deitu eskualdea lekutzen da.

Zati nagusia, Urbina eta Urrunaga alegia, Legutioko Udalbarrutian badago ere, kontutan hartu behar da Urbinako mugatik ekialdeko mendisketaraino dauden lurrak Lukukoak direla, hau da, Arratzu-Ubarrundia ko Udalbarrutiarenak.

Kokapen geografikoari begiratuz gero, honako koordenada hauen artean aurkitzen da:

42° 56' eta 42° 57' 50'' latitudeen artean

1° 01' 30'' eta 1° 04' 30'' luzeren artean,

mugak hauexek direlarik:

Iparraldean Nafarrate, Legutio, Goiain.

Hegoaldean Arratzu-Ubarrundiako Luku herria.

Ekialdean Arratzu-Ubarrundia luzeran.

Sartaldean Arratzuko Betolaza eta Legutioko Nafarrate.

1.1.1. Orografia

Zortzi Km² inguruko hedadura duen lurralde hau, ekialde eta mendebaldean mendiskez inguraturik ager-

tzen zaigun arren, ia erabat laua dela esan genezake.

Barnean ematen diren garaiera diferentziek ez du te 548 m.tatik gora eta 519 m.tatik behera egiten. Bai Urrunaga eta bai Urbina 529 metrotako altitudetan aurkitzen dira.

Mendirik garaienak mugez bestaldera geratzen bada dira ere (Nafarrate aldera, Bergara -632 m.-; Ekialde ra, Arratzu-Ubarrundia aldera, ia muganbertan, La Cruz Grande -697 m.-, lehen, dirudienez, Goiazkobasoburua izenekoa), bada mugen barnean dagoen zenbait mendiska:

Hegomendebaldean (Ur.) Mendieta izeneko mendiska katea; bertako gailurrek halere ez dute 600 m.-tako goratasuna gainditzen.

Ekialdean (Ub.), Erroba mendian, gaur euskal izenik ezagutzen ez zaion arren, duela berrehun eta berrogeitamar urte Urdaiburugana izenaz deitzen omen zen tontorra dago.

1.1.2. Hidrografia

Urrunagako Artza auzoan elkartzen ziren erreka bien uraz baliatzeko asmotan, 1950. urteetako hamarkadan orain ikus daitekeen urtegiaren eraiketari hasiera eman zitzaion. Hain zuzen ere, 1957.ean hasi zen martxan 71 Hm³. daukan urtegi hau, honako bi funtzio hauek betetzeko: alde batetik; Bilbo urez horni

tzeko, eta, bestetik, Barazarreko lurrazpiko urjauzia mantentzeko.

Baina urtegia gizarteari probetxu handikoa bazaio ere, geroago ikusiko denez, agerian daude toponimiari ekarri dizkion kalteak.

Erreken izenei gagozkielarik, gauza jakina da toki bakoitzetik igarotzean hartzen duten izenetik aparte, badutela, dokumentuek adierazten dutenez, izen berezi bat, maiz asko denboran zehar aldatua.

Hau da, esate baterako, esku artean ditugun erreken izenen kasua. Gaur egun urtegiaren izena eta Urru naga eta Urbinatik pasatzen den errekaarena ere SANTA ENGRAZIA bada, badirudi 1593.ean, betidaniko RIO MAYOR izen arruntegia kontutan hartzen ez badugu, MAURIBAIA izendatzen zutela.

Bestalde, Legutiotik zetorrena (gaur egun erreka baino, urtegian desagerturiko latsa!) IBAI ZAHARRA izendatzen zuten, antza denez.

Nolanahi ere, dagokigun lurraldean geratu den erreka bakarra aipatu SANTA ENGRAZIA da. Honez gain, bada Urbina aldean garrantzi gutxiko eta izenik gabeko latsen bat ere.

Dokumentuen terminologian ur-eraman handiko errekek "rio caudal" esanez adierazten dira; "rio", "riachuelo" edota "arroio" erabiltzen direnean ur gu

txiko errekak edo latsak adierazi nahi izaten dira.

1.1.3. Klima

Ozeaniarra da eskualde hau bereizten duen klima moeta, leuna eta heze samarra alegia.

Urtean zehar ematen diren euri-jausteen batez bestekoa 944,6 mm. ingurukoa da.

1.1.4. Paisaiaren aldaketa

Azken 20-25 urteotan izugarritzko aldaketa eman da lurralde honetan. Alde batetik, urtegiaren eraketak ekarritakoa: Urrunagako zenbait etxe ur azpian geratu ziren, Legutio herriko mugetaraino zeuden soro, baso eta landu gabeko lurrekin batera.

Bestalde, 1967.ean lur batzearen plangintzari ekin zitzaion, eta baserritarren ekonomiari emaitzak onak ekarri bazizkion ere, ezin da gauza bera esan toponimiari gertatutakoaz. Gauza jakina da jabe bakar baten zelai edota soro handi bat adierazteko ez direla lehenago toki hori osatzen zuten alor guztien izenak erabiltzen. Izen bat izaten da, normalean, besteen kaltetan nagusitzen dena, nekazariak ez bait dute emankor edo produktibo ez den hitz bat, lekuz izen bat alegia, erabiltzen. Ondorioz, ahaztu egiten dira eta zenbait toponimo, hain zuzen, galdutzat

eman daitezke.

Azkenik, aipatu beharrekoa da Legutioko udalak erabakitako industri plangintza. Hau zela eta, industri poligonoa Urbina eta Urrunaga aldera eramán zen. Ondorio gisa, hor dago lantegi berriek (Arregi urtzagintza, ALIDESA, etab.) bortxatutako itxuraldaketa, hegoaldetik iparralderantz doan autobideak eginikoa ahortzi gabe.

1.2. Geografia ekonomikoa

Orain denbora asko ez dela, jendea nekazaritzaz edota abeltzantzaz bakarrik baliatzen bazen ere, gaur egun industriak garrantzi handia lortu du Legutio osoan. Normala da, beraz, lantegietan ihardun ondoren jende asko baserriko lanetan aritzea. Honi ekonomia mixtoa deitzen zaio. Ikus ditzagun laburki arlorik inpotanteenak.

1.2.1. Industria

Aintzinean garrantzi handikoak izan ziren, industri arloan sar badaitezke behintzat, orain urtegiak urperatuta utzi dituen boluak edo errotak. Esaterako, Urrunagan ospe handiko "2 ruedas" zeuden, bat BEZINKOA zelarik.

Gaur egun industriaren garapenak moeta ezberdi-

netako lantegiak ekarri ditu dagokigun lurraldera. Beste batzuren artean, (eta kasu honetan ez goaz herri bakoitzak dituen administral mugak errespetatzera, aski zaila bait da egiteko hori) inguru haietan kokatzen diren lantegirik inportanteenak, gehienak Urrunaga eta Urbinako lurak hartzen dituen "Polígono Industrial de Gojain" delakoan daudelarik, honako hauek dira: "Alavesa de Ingenieria y Desarrollo S.A." (ALIDESA), "Conducciones y Derivados S.A." (CONDESA.), "Shutton S.A.", etab.

1.2.2. Nekazaritza

Hauxe izan da industriaren hazkundera eman aurretik, famili ekonomia mantentzeko erarik zabalduena eta garrantzitsuena.

Lurralde honen hedadura 800 Ha. ingurukoa izanik, 200 bat Ha. mendiek eta lur elkorrek daramate. Bestalde, aprobetxa zitekeen lurra nahiko banatuta egon da oraintsu arte, soroak-eta txikiak gertatzen zirelarik aprobetxamendu normal batetarako. Esaterako, lur probetxagarrien batez bestekoa eginez gero, soro bakoitza 3.200 m².-takoa ateratzen zen lur bilketa edo "konzentrazio partzelarioa" eratu baino lehen.

Sakabanaketa honek behar-beharrezkoa egiten zuen lur bilketa 1967.ean burutu zen. Adibide gisa, esan

dezagun 2000 soro 200 bat izatera pasatu zirela. Eta lur bilketa egin aurretik soroak 0,32 Ha.-takoak (batez bestekoaz ari gara) baziren, gero 2,70 Ha.-takoak bilakatu ziren.

Zoritxarrez, lurren emaitzak gehitzeko egin zen plangintza edo bilketa hori, azken batean, industrializazioaren poderioz, ez zuen espero zitekeena eman, lur hauen ekoizpen orokorra gutxituz joan bait da paisaiaren aldaketa fisikoarekin batera. Ez ahaztu, bestalde, Urbinan bertan abeltzantzari utzizaion lur zabalak bezain emankorra nekazaritzaren kaltetan joan dela.

Nolanahi ere, eta lehen baino gutxiago bada ere, gaur egun gehien ematen diren zituak hauexek dira: artaberdea, lekadun zuhain leguminatsua eta patatak; are gutxiago garagarra, garia eta oloa, eta, inguruetako toki guztietan bezalatsu, barazkiak.

Esan beharra dago fruitarbolak eta bestelako zuhaitzak eskasak direla. Aintzinean, toponimiari kasu eginez gero, bazegoen, antza, orain aurkiezinezko zai gun arbola ugari. Esaterako, ez litzateke zaila izango BAGOETA-n, SAGARMINAGA-n eta TXARALDUI-n zer ote zegoen asmatzea, edo ALESBAKOLEKU-n inguruetan zegoe-na falta zela susmatzea. Horrez gain, urtegiak lurrak estali baino zenbait urte lehenago baziren Urrunaga

aldean 25 Ha. haritzez beterik (7).

Badirudi, beraz, huts egin duela 1852.ean Legutioko Udalak nekazaritza salbatzeko markatu nahi izan zuten politika ekologikoak:

Es indudable (...) que la desaparición del arbolado influirá perjudicialmente en la modificación del clima como ha influido de algun tiempo á esta parte. En prueba, se sabe de un modo positivo que una tierra en el próximo pasado siglo cultivada y estercolada como hoy, producía poco menos que doble, por efecto sin duda de estar poblados los alrededores de esta villa de montes brabos y espesos que contenían los perjudiciales efectos que ahora producen los vientos nortes en las plantas de cereales y principalmente en las de maiz y aluvia (...) (8).

Gaur egun, tamalez, ia ez da zuhaitz aztarnarik geratzen zuhaitz falta izan ez duen lurralde honetan, eta nekazaritza, beste arrazoi asko direla medio, bigarren mailara baztertu da.

1.2.3. Abeltzantza

Industria eta mekanizazioa garatuz joan diren neurrian abeltzantzaren garrantzia gutxitu egin bada, ezin ahaz ditzakegu, gutxiagotze honen arrazoiak aztertzerakoan, urtegiak abeltzantzaren kalterako

(7) CARRERAS CANDI, F.: Geografía General del País Vasco, Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1980, 534 or.

(8) Legutioko Udal Artxiboa, L 42-19.

bereganatzen dituen baso eta soroak.

1884.ean egindako erroldetan begiratu besterik ez dugu abereek izan duten garrantziaz ohartzeko. Harrezkero, produkzioaren espezializazio nabarmena ageri da.

Ikus dezagun bilakaera horren testigantzaren bat.

	<u>1884</u>			
<u>ABEREA</u>	<u>UR.</u>	<u>UB.</u>	=	<u>DENETARA</u>
Zaldiak	88	65	=	153
Mandoak	2	1	=	3
Astoak	6	2	=	8
Betabereak	82	55	=	137
Ahuntzak	103	5	=	108
Txerriak	63	19	=	82

(9)

1967. urtean, aldiz, Urrunaga, Urbina eta Nafarra teko abereek honelako zenbakiak ematen zituzten: Betabereak, 350 buru; artabereak, 400 buru; txerriak, 46 buru eta hegaztiak, 1360 buru.

Gaur egun, hegaztien esplotazioa kontutan hartu gabe, honela banatzen dira zenbakiak:

(9) Probintzi Artxiboa, D. 2294-1.

<u>ABEREA</u> K	<u>UR.</u>	<u>UB.</u>		<u>DENETARA</u>
Behiak	34	84	=	118
Txerriak	19	13	=	32

Kontutan hartu behar da betabereak, normalean, esnedunak direla, hau da, esne produkzioarako haziak.

Bestalde, aipagarria da ANGELUA-n (Ub.) LANA kooperatibak duen abere esplotazioa: ia 200 bigantxa.

1.3. Zenbait ohar Historia eta Giza Geografiari buruz

1.3.1. Ezaugarri orokorrak

Lurralde honi buruzko datu zehatzik aurkitzen ez bada ere, bidezko izango litzateke Santa Engrazia deritzon urtegian aurkitu aztarnategien arauera, Eneolitikoan populazio moietaren bat zegoela pentsatzea.

Bestalde, Historiaren harian aurrera eginik, historialarien ikerketek adierazten dutenez, erromanizazioa hasi zenean Euskal Herrian bizi ziren tribuetatik karistiarrena izan zen lurralde honetaz jabeturik egon zena.

Dena dela, ez bide dago beste testigantza fidagarrikerrik erromatarren aztarnak Santa Engrazia ibaiaren ertzean azaldu arte. Informazio urria, beraz.

Geroztik, 952. urtera arte, ez de ez aztarna ez aipu historikorik aurkitu. Urte hartan eman zen, hain

zuzen ere, Urrunaga eta Urbina herrien lehen aipamen historikoa Done Emiliako Kartularioan.

Harrezkero, aipamen historikoak areagotuz joan dira. Aipagarriena, agian, Donomiliagako Monastegiari zergak (hots, burdina eta abereak) ordaintzen zizkio- ten arabar herrien artean lurralde honetako zenbait herri eta gaur egun despopulaturen izenak aurkitzea da, hala nola Urbina, Urrunaga, Bagoeta, Angelua, ...

Administral egituraketari dagokionez, kontutan hartzekoa da, gero Legutioko Udalbarrutia izango zenaren zati handi bat (Urbina eta Urrunaga barruan zeu delarik) 1143. urtearen inguruan Ubarrundiako barrutian zegoela. Handik berrehun urtetara, 1333an alegia, Alfontso XI erregearen aginduz, Legutio herriska zegoen tokian Bilerle (Villa Real, gaur egun Legutio) hiria eraiki zen, Nafarrate, Elosu, Goiain, Urbina eta Urrunaga bere hesparruan hartuz.

Bestalde eta ezaguna bada ere, aipatu beharra da go 1537.etik 1840.era Araban egin ziren sei "CUADRILLA" izeneko horietatik Laguardiakoan gertatu zela Legutio osoa. Harrezkero Zuiakoa osatzera pasatu zen.

Udal Barrutiaren barneko gestiorako Legutioko Anaiartea (Hermandad, gazteleraz) hiru koadrilatan banatzen zen: Lehenengoa Legutio hiriak osatua, biga

rrena Elosu, Urbina eta Goiain herrien artean eta hi rugarrena Nafarrate eta Urrunaga artean osatua.

Halaz ere, herrietan ("lugares", "aldeas" direla koetan) ez zegoen inolako gestio-gunerik, dena biltzen bait zen Udaletxean. Urrunaga eta Urbina "aldea" maila koak izan dira betidanik.

Eliz antolamenduari dagokionez, herri bakoitzak bere parrokia edo eliza nagusia zeukan/dauka: Urrunagan Donibaneri eskainia eta Urbinan Done Antolini.

Horrez gain, baziren baseliza batzu ere: Urrunagan, esate baterako, "San Bartolomé", "Santiago" eta "San Miguel" izenekoak; Urbinan, aldiz, "Santa Lucía" eta "San Andrés" zeuden. Urbinatik hurbil baina ekialdera, Lukuko barrutian hain zuzen ere, "Santa Marina" baseliza zegoen. Tamalez, ia ez da baseliza hauen guz tien aztarnarik geratzen.

Modu berean, sinbolo erlijiosoekin segituz, jende zaharraren gogoan daude oraindik ere zenbait menditan jartzen ziren gurutzeak. Inork ez omen daki zertarako ziren edo zernolako balioa zuten, baina ezagunak ziztuzten halere. Egoera honen lekukotasuna toponimian ere ikus daiteke: KURTZEPEA, KURTZETXUETA, etab.

1.3.2. Populaketa

Historian zehar eman den populaketa moeta nahiko bildua izan da, hots, Arabako Lautadako ohituren antzera, jendea herri sakabanatuetan bildu da, iparralderago hain arrunta den baserri-etxeen fenomeno nagusi ez delarik. Etxe bakan batzu ezik, beste guztiak gune baten inguruan bildu izan dira; Urbina eta Urrunaga lekuko.

Bizigune hauezaz gain, badira dokumentuetan azaltzen diren herriska / baserri (antza denez, XI. mendetik aurrera despopulatuak) biren izenak: ANGELUA eta BAGOETA (LASPAGOETA bigarrenaren eratorri zehaztuagoztat har genezake).

Bai Urbina eta bai Urrunaga Santa Engrazia deitu errekarren ezkerretara izan ziren eraikiak. Gauza bere gertatu zen ANGELUA-rekin. BAGOETA, aldiz, Santa Engrazia ibaira doan errekastobaten inguruan bide zegoen.

1.3.3. Demografia

Erdi Aroko Historiaz aritzen den edonork dakien bezala, gaindiezinezko eragozpenak aurkitzen dira demografiako gorabeherak ikertu nahi direnenan: maizegi, demografiako iturririk ez dagoelako, eta, daudenan, fidagaitzak gertatzen direlako.

Arrazoi guztia dauka G. de Valdeavellano ikerlariak XV. menderarteko demografia neurtzeko moduez "se basan en conjeturas muy frágiles" dioenean (10).

Hala ere, eta besterik ezean, guztiz interesgarria izan daiteke hurbilketa orokor bat egitea.

Horrela, García de Cortazarren kalkuluetan oinarriturik (11), 1025.eko Kartularia baliagarria baino baliagarriagoa da biztanleen kopurua susmatzeko. Historialari honek dioenez, Donemiliagako Errexan azaltzen diren herriek, 10 familiak osatutako multzo bakoitzeko "rega" izeneko bat ordaindu behar izaten zioten Donemiliagako Monastegiari. Famili partaideak bospasei zirela kalkulaturik, honako formula hau ateratzen zaigu:

Burdinsareak X 10 familia X 5/6 partaide

Kartulariak dioenaren arauera

Hurnaga I rg. Urbina, et Angellu I rg.
(...) Bagoeta I rg.

(Cart. 180, 176 or.)

(10) G. DE VALDEAVELLANO, Luis: Curso de Historia de las Instituciones españolas, Alianza, Madrid, 1982, 305 or.

(11) Ikus GARCIA DE CORTAZAR, José Angel: "los oscuros comienzos. La Alta Edad Media", Alava en sus manos, 3. tomoa, 73-104 or.

honako ondorioak hatzeman daitezke:

TOKIA		BIZILAGUNAK
Urrunaga	50-60
Urbina	}
Angelua		
Bagoeta	50-60

Halaz ere, Bagoeta eta Angelua, 1025.ean herri bezala aipaturik agertzen badira ere, XIV. mendetik aurrera herri desagertutzat azaltzen dira, edo, hobe, ez dira herri bezala agertzen (kontutan hartu Bilerle - gaur eguneko Legutio - eraiki zenean, 1333.ean alegia, aurrerantzean menpean izango zituen herrien artean ez zirela herri-izen horiek aipatzen).

Demografiaren hariari jarraipena emanez, esan dezagun geroagoko zergadunak zenbat ziren jakin arren, bizilagunen kopurua ez dela bereziki argitzen, haien artean ez bait dago erlazio nabarmenik.

HERRIAK	1590	1682-83
Urrunaga	19,50 zerg.	30 zerg.
Urbina	16 "	25 "

(12)

(12) Probintzi Artxiboko D. 240-1.2 eta D. 1233-11 dokumentuekin osatua.


OHAR.: Ik. BAGOETA.

201. URBINAGA(I)NA

DOK.: Urbina gaña (1832, Prot. 13A, 102
 or.); Urbilagana (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna izan arren, BIZKARGANA
 izendatzeko erabiltzen zela dirudi.

202. URBINAKO PADUREA

DOK.: Urbina Padurea (1832, Prot. 13A, 148 or.); Urbina Parturea (1849, Hipo. 1, 93 or.); Padurea Urbina (1884, D.2293-1); Urbina Padurea, Urbineco Padura, Urbine Padurea, Urbineco Padurea, (1894, D.2291-1).

DESK.: Urrunagako PADUREA-tik bereizteko erabilia. Normalean, Urrunagakoek erabiltzen bide zuten izen hori. Ik. PADUREA.

203. URBINA ZABALGANA

DOK.: Urbina-Zabalgana (1851, Hipo. 1, 123 or.).

OHAR.: Ik. ZABALGANA.

204. URDAIBURUGANA

DOK.: Urdaiburugana (1726, LUA-L 42-14).

OHAR.: Guztiz ezezaguna. Hala ere, GOIAZKO BASOBURUA-tik hegoaldera eta metro gu txitara dagoen tontorra izendatzen zuela dirudi.

205. URRUNAGABIDEA

EBAK.: (Kamino / Karretera de Urrúnaga).

DOK.: Hurrunagabidea (1593, LUA-K 5-4, 10 or.); Urrunagabidea (1598, Prot. 3, 92 or.); Urrunagarabidea (1638, Prot. 11, 10 or.); Urrunagarabidia (1682, LUA-K 5-20); Urrunagaco videa (1884, D.2293-1); Urrunagabide (1894, D. 2291-1).

DESK.: Urrunagara doan bidea.

206. URRUNAGABIDEPEA

DOK.: Urrunagabidepea (1884, Hipo. 1, 39 or.).

OHAR.: SANTA LUZIA ALDEA-n bide zegoen.

207. USANSOLO

OHAR.: Ik. ANSARSOLO eta AUSOSOLO.

208. USASOLO

OHAR.: Ik. ANSARSOLO eta AUSOSOLO.

209. USOBALTZUA

DOK.: Usobalsua (1831, Prot. 13, 35 or.).

OHAR.: Gaur egun soro hau ezezaguna da.

BAGOETA-n zegoen.

210. VILLA REAL BIDEA

EBAK.: (Karretera de Billarreal)

DOK.: Villa Real videa (1692, LUA-K 3-16).

OHAR.: Gaur egun Urbinatik Bilerlera doan bidea ez da lehenengo toki berberetatik igarotzen.

211. VISTA ALEGRE

EBAK.: Bista alégre.

DESK.: CUATRO VIENTOS eta SAN ANDRES artean dagoen tontorra.

212. ZABALGANA

EBAK.: Sabálganà, Sabalgána.

DOK.: Cavalgana (1593, LUA-K 5-4, 10 or.);

Sabalgana (1638, Prot. 10, 37 or.);

Zavalgana (1831, Prot. 13, 131 or.);

Zabalgan (1841, Hipo. 1, 11 or.).

DESK.: ANGELUBIDEA-tik PADUREA-rantz hedatzen diren zelaiak.

OHAR.: Zenbait dokumentutan "zabalgana ó Curcepea", "Zabalgana ó Santa Lucia aldea", ... ikus daiteke. Mugak, beraz, ez dira ongiegi bereizten.

213. ZABALGANA URBINA

DOK.: Zabalgana-Urbina (1884, D.2293-1).

DOK.: Urbina aldean dagoen ZABALGANA adierazteko, urrunagakoek erabiltzen duten izena.

214. ZALDUA

EBAK.: Sáldua.

DOK.: Caldua (1590, Prot. 1, 24 or.); Çaldua (1590, Prot. 1, 112 bis; 1593, LUA-K 5-4); Saldua (1832, Prot. 13A, 86 or.); Saldo (1844, Hipo. 1, 38 or.); Zaldua (1847, Hipo. 1, 72 or.).

DESK.: Goiain eta Urbinaren artean egonik, autobideak eta Gipuzkoako bideak inguratzen duten eremua; gaur egun itxural datuta eta lantegiz zipriztindua. PARRA TXI ondoan.

215. ZALDUA BIDEBITARTEA

DOK.: Caldua bidebitartea (1593, LUA-K 5-4 3 or,).

OHAR.: Ezezaguna. Nolanahi ere ZALDUA-k adierazten duen toki berbera dirudi, bide biren artean bait dago.

216. ZEPAMENDI

EBAK.: Sepamendi

DOK.: Sepamendi (1859, Hipo. 2, 117 or.);

Zapamendi (1861, Hipo. 2, 171 or.).

DESK.: ZALDUA eta PARRATXI artean. CONDESA lantegia aurkitzen den tokian.

217. ZUBIALDEA

DOK.: Subialdea (1851, LUA-L 42-22; 1853 Hipo. 1, 153 or.).

OHAR.: 1853. eko dokumentuan "barrio" beza la agertzen da. LASA aldean bide zego en. Ik. ZUBITXOETA.

218. ZUBINOA

EBAK.: Subinóa, Suminóa.

DOK.: Çuviñoa (1590, Prot. 1, 104 or.);

Çubinoa (1638, Prot. 11, 10 or.);

Cubino (1638, Prot. 11, 201 or); Zubi-

noa (1851, Hipo. 1, 118 or.); Subinoa

(1855, Hipo. 2, 23 or.); Subinua, Su-

binau (1884, D.2293-1); Suvinoa, Subi-

ñua (1894, D.2291-1).

DESK.: Urrunagako bidearen eskuinaldean, TXARALDUIA-ren parean dagoen zelai edo

lautadatxoa. Erabat aldatuta. Bertan
Lantegi bat dago.

219. ZUBINOA DE ABAJO

DOK.: Subinoa de abajo (1847, Hipo. 1, 67
or.).

220. ZUBINOA DE ARRIBA

DOK.: Subinoa de arriba (1847, Hipo. 1, 67
or.).

221. ZUBINOKO ERREKEA

DOK.: Cubinoco herrequea (1593, LUA-K, 5-4
10 or.).

OHAR.: Ezezaguna. ITURZARRA-tik zetorren
erreka bide zen.

222. ZUBINOKO ERREKA ALDEA

DOK.: Cubino co erreca aldea (1638, Prot.
11, 8 or.).

223. ZUBITUA

DOK.: Subitua (1862, Hipo. 2, 237 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

224. ZUBITXOETA

DOK.: Zubichueta (1728, LUA-L 42-14); Çubi-
choeta (17??, LUA-L 42-2).

OHAR.: Ezezaguna. LATXE aldean, antza denez.

225. ZUBITXOETA ERREKEA

DOK.: Zubichoeta-errequea (17??, LUA-L 42-2).

OHAR.: Ezezaguna.

226. ZUBI ZAHARRA

DOK.: Cubiçar (1601, Prot. 5, 36 or.);
Çubizar (1638, Prot. 11, 201 or.);
Subisarra (1692, LUA-K 3-16).

OHAR.: Lekutzeko aztarna bakarra hauxe du-
gu: "... camyno que ban a Urrunaga
dende Menano ..." (Prot. 5, 36 or.),
han bide zegoen aipatu toki hau.

227. ZULONPO

EBAK.: Sulonpo

DOK.: Sulompo (1847, Hipo. 1, 67 or.).

DESK.: Urrunagako ibaian izkutatutako ura
agertzen den putzua; inguruko soroak.

3 . U R R U N A G A K O
T O P O N I M O E N
Z E R R E N D A

3. URRUNAGAKO TOPONIMOEN ZERRENDA

3.1. TOPONIMIA NAGUSIA

1. URRUNAGA

EBAK.: Urrúnaga.

DOK.: Urna, herria (952, Cart. 64, 75 or.);
Hurnaga (1025, Cart. 180, 176 or.; 1294
 FITA 218 or.); Gurrunaga (1257, HERG.)
 (28); Huruaga (1333, LAND.: Suplemento,
 286 or. Transkribaketaren akatsa dirudi:
 Hurnagaren irakurketa gaiztoa, agian);
Urrunaga (1545, LUA-L 42-20); Hurrunaga
 (1590, Prot. 1, 5 or.).

OHAR.: Sarri askotan (H)URUNAGA agertzen da.

3.2. TOPONIMIA XEHEA

1. ALTSIDUA

EBAK.: Alsídua, Altxídua.

DOK.: Alsedua, Alsiduia (1884, D.2293-1);
Alsidua, Achidui (1894, D.2291-1).

DESK.: Urtegiak estalitako tokia. SAGARMINA
 GA-tik hurbil.

(28) Lopez de Guereñuren "Pueblos alaveses" izeneko lanetik jaso, 69 or.

2. (H) ALTZAMENDI

EBAK.: Altzaméndi.

DESK.: SARRAUA aldean zegoen iturri bat.

3. ANSOMENDIA

DOK.: Ansomendia (1593, LUA-K 5-4, 54 or.).

OHAR.: Ezezaguna gaur egun.

4. (H) ARANA

DOK.: Arana (1593, LUA-K 5-4, 57 or.; 1894
D.2291-1).

5. (H) ARANKOA

EBAK.: Aránko.

DOK.: Arancoa (1678, LUA-K 2-5); Aranco (1692,
LUA-K 3-16):

DESK.: MUNAPEA-tik gora, urtegiak egiten
duen sarguneraino doan lurraldea.

6. (H) ARANKOGANA

EBAK.: Aránkogana.

DOK.: Arancogana (1837, HIPO. 1, 10 or.);
Arancogana Nafarrate (1894, D.2291-1).

DESK.: Nafarrateko bidean ARANKO gainean
dagoen gailurra.

OHAR.: Toki-izen hau ez zitzaien elkarrizketatuei ezagunegia egiten. Eman ziztuzten zehaztasunak, neurri handi batean, hitzaren esangurari zor zaizkio.

7. (H)ARANKOSAKONA

EBAK.: Aránkosakonà, Arankosakóna.

DOK.: Arancosacona (1846, Hipo. 1, 59 or.).

DESK.: Urtegiak egiten duen sartunea. Ik.

(H)ARANKO.

8. ARETXALDEA

DOK.: Arexaldea (1599, Prot. 4, 27 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

9. ARETXANDIETA

DOK.: Arexandieta (1592, A.1, 76 or.);

Arechandieta (1592, A.1, 77 or.).

OHAR.: Gaur egun ezezaguna. SANTIAGO babilizaren inguruan bide zegoen.

10. ARMOKIZAR

EBAK.: Lamikosárra, Lamíkosarra.

DOK.: Armoquicar, Armoquiçar (1593, LUA-K

5-4); Almoquiçar (1598, Prot. 3, 35 or.);

Armoquizao (1682, LUA-K 5-20); Al-
moquizarra (1843, Hipo. 1, 24 or.);
Almoquisarra (1858, Hipo. 2, 83 or.);
Armoquizar, Armoquizar (1884, D.2293-1).

DESK.: SANTA LUZIA-rantz dagoen zelai handi
bat.

11. ARMOKIZARBEA

DOK.: Almoquicarbea (1859, Hipo. 2, 101 or.).
OHAR.: Ezezaguna. Ik. ARMOKIZAR.

12. (H)ARRIETAGANA

DOK.: Arrietagana (1724, LUA-L 42-14).
OHAR.: Gaur egun ezezaguna izan arren, le-
hen "cuesta" bezala agertzen zen BETO-
LAZA (H)ARANA-tik ITURRIMENDIETA-ranz-
ko bidean.

13. (H)ARRIETASAKONA

DOK.: Arrietasacona (1859, Hipo. 1, 101 or.);
Arrisacona (1884, D.2293-1); Arrietaco-
sacona, Arriyetacosacuna (1894, D.2291-
1).

OHAR.: Ezezaguna.

14. (H)ARRIPAUSUETA

EBAK.: Padúrako Arrípasuèk, Los pasos de Paduréa.

DOK.: Arripausueta ó Comunea (1853, Hipo. 1, 155 or.)

DESK.: PADUREA-n erreka igarotzeko dagoen pasabidea.

OHAR.: Ik. URALDEA.

15. ARTZA

EBAK.: Artza, Arca.

DOK.: Arça (1638, Prot. 11, 46 or.); Arza (1675, LUA-K 3-35).

DESK.: Gaur egun ur azpian geratu den auzoa. Barraderaren ondoan zegoen.

16. ARTZABURUA

DOK.: Arça burua (1678, LUA-K 2-5); Arsaburu (1844, Hipo. 1, 35 or.); Arzaburu (1860, Hipo. 2, 137 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Ik. ARTZA.

17. ARTZAGANA

DOK.: Arcagana (1593, LUA-K 5-4, 56 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Ik. ARTZA.

18. ARTZAMENDI

EBAK.: Artzámendi, Arzaméñdi.

DOK.: Arsumendi (1858, Hipo. 2-83); Azumendi (1884, D.2293-1).

DESK.: Urtegiaren azpian geratu diren sorobatzu.

19. ARTZAMENDIETAGANA

DOK.: Arza mendietagana (1756, LUA-L 3-2).

DESK.: "monte jaral y paraje".

OHAR.: Gaur egun ezezaguna. Urez estalirik. Nafarrateko mugan.

20. ARTZAOSTEA

EBAK.: Artzáosteà, Artzõsteà.

DOK.: Arza ostea, Arçaostea (1593, LUA-K 5-4, 54 or.); Arcaostea (1692, LUA-K 3-16); Asostea (1833, Prot. 13B, 92 or.); Arzostea (1858, Hipo. 2, 83 or.); Arsostea, Arzaostea, Alsoste (1884, PA. D.2293-1); Arsaostea (1894, D.2291-1).

DESK.: KURTZALDEA-tik barraderantzeko tokiak. ARTZA auzoaren zati bat.

OHAR.: Bertakoen hitzez, "Artzostea edo LARRAUNDI" (majuskulak gureak dira).

21. ATXASO

DOK.: Achaxo, Achaso (1757, LUA-L 3-2).

DESK.: "monte".

OHAR.: Ezezaguna.

22. ATXAUSI

EBAK.: Atxáusi.

DOK.: Achausi (1884, D.2293-1).

DESK.: SANTA ENGRAZIA ibaiak, ARRIPAUSUETA-
ra iritsi baino lehenago, eskuinaldean
uzten duen toki aldapatsua.

23. ATXAUSIGANA

DOK.: Achausigana (1846, Hipo. 1, 59 or.);
Achausigan (1884, D.2293-1); Achaosi-
gana (1894, D.2291-1).

OHAR.: ATXAUSI gainean dagoen tontortxo
adierazten bide du.

24. AXELIBAR

EBAK.: Atxíllebarrà, Atxillebárre.

DOK.: Axelybarr (1593, LUA-K 5-4, 10 or.);

Axelybar (1599, Prot. 4, 27 or.);

Achibarra (1846, Hipo. 1, 53 or.);

Achilibarra (1849, Hipo. 1, 88 or.);

Asilivar (1854, Hipo. 1, 196 or.);

Asiliber (1862, Hipo. 2, 215 or.);

Asilivarra (1884, D.2293-1).

DESK.: Urbinatik (H)ARRIPAUSUETA-rantz
doan bidearen iparraldean dagoen landa.

25. BARRERA DEL CAMINO DE KURRUA

DOK.: Barrera del camino de currua (1849,
Hipo. 1, 93 or.).

26. BARRIO DE ABAJO

DOK.: Barrio de abajo (1862, Hipo. 2, 274
or.).

OHAR.: Ik. BEKOURIA.

27. BARRIO DE LA IGLESIA

DOK.: Barrio de la Yglesia (1858, Hipo. 2,
83 or.).

OHAR.: Ik. ELIZALDEA.

28. BASABARREN

EBAK.: Basabárrin.

DOK.: Basa barren (1638, Prot. 11, 128 or.);

Basa barrena (1692, LUA-K 3-16); Bassa

barrina (1692, LUA-K 4-11); Basabarrin

(1843, Hipo. 1, 28 or.); Basobarren
 (1849, Hipo.1, 94 or.); Basavarri
 (1851, Hipo. 1, 124 or.); Basabarria
 (1862, Hipo. 2, 187 or.); Basabarrín
 (1884, D.2293-1).

DESK.: Gaur egun ur azpian egon arren, Legutio aldera zihoan bidean aurkitzen zen.

OHAR.: Ik. ERROTABURUETA.

29. BATANZA

EBAK.: Batánca.

DOK.: Batansa (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezaguna den arren, urtegiak estalita dauka.

30. BATANZAGANA

DOK.: Batansagana (1858, Hipo. 2, 97 or.);

Batanzagana (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ik. BATANZA.

31. BATANZA OSTEA

DOK.: Batanza ostea (1638, Prot. 11, 38 or.);

Batansoste (1681, LUA-K 5-11); Batanza-

bostea (1884, D.2293-1); Batansaostea

(1894, D.2291-1).

OHAR.: Ik. BATANZA.

32. BE(H) IKORTA

DOK.: Beicorta (1852, LUA-L 42-19).

OHAR.: Ezezaguna.

33. BEKOETXE

DOK.: Becoeche (1884, D.2294-1).

OHAR.: Lehen kale baten izena bazen ere,
gaur egun ez da erabiltzen.

34. BEKORTUA

DOK.: Becortua (1833, Prot. 13B, 90 or.).

DESK.: "encima de la fuente".

OHAR.: Gaur egun ezezaguna.

35. BEKOURIA

DOK.: Becouria (1882, D.383-8); Becuria
(1894, D.2291-1).

OHAR.: Urrunagako auzo bat.

36. BERGARA

EBAK.: Bergára.

DOK.: Bergara (1622, Prot. 7, 80 or.; 1638,

Prot. 11, 203 or.).

DESK.: "término y territorio redondo"

(LUA-K 4-28). Nafarrate aldera dago-
en mendi edota baso zabala.

37. BERGARA BAZTERRA

DOK.: Bergara basterra (1724, LUA-L 42-14).

OHAR.: "heredad", "zerro". Gaur egun eze-
zaguna.

38. BERGARABIDEA

EBAK.: (Kamino a Bergara), Bergárabideà.

DOK.: Vergarabide, Vergarabidea (1884, D.
2293-1).

DESK.: Izenak berak dioen bezalaxe, Berga-
rara doan bidea eta inguruan dauden
soroak adierazten ditu.

39. BEROKEA

EBAK.: Beróki.

DOK.: Beroquea (1682, LUA-K 5-20); Beroqui
(1849, Hipo. 1, 88 or.); Berruqui, Be-
roqui (1855, Hipo. 2, 5 eta 22 or.).

OHAR.: Izena entzuna izan arren, ez zeki-
ten non zegoen.

40. BETOLAZA (H)ARANA

DOK.: Betolaça arana (1593, LUA-K 5-4, 56 or.); Betolaza arana (1724, LUA-L 42-14).

OHAR.: "cuestecilla llamada ..." (LUA-L 42-14). Ezezaguna gaurko hiztunentzako.

41. BETOLAZAGANA

DOK.: Betolasagana, Betolazagán (1884, D. 2293-1).

OHAR.: Ezezaguna. Nolanahi ere, luku-izenak adierazi bezala, ez litzateke zaila izango non zegoen asmatzea.

42. BETOLAZARABIDEA

EBAK.: Betólasàbirià, Betolasabiría.

DOK.: Betolacarabidea (1638, Prot. 11, 46 or.); Betolazavidea (1846, Hipo. 1, 53 or.).

DESK.: Urrunagatik Betolazara doan bidea. Izen berbera eta testimonio zaharra-goak eduki arren, Nafarratetik Betolazarako bidea beste bat da.

OHAR.: Ik. CAMINO DE BETOLAZA.

43. BEZINA

EBAK.: Betxína.

DOK.: Beçina (1592, A.1, 77 or.); Bezina (1638, Prot. 11, 94 or.); Vezifña (1650, A.1); Vecina (1766, LUA-L 18-5); Vetcina (1837, LIA-K 4-17); Betcina, Bechina (1884, D.2293-1).

DESK.: Legutiotik igarotzen zen ibaiaren ertzean zegoen errota. Inguruko lurrak. Gaur egun urtegiak estaltzen du.

44. BEZINA ALDEA

EBAK.: Betxinaldéa.

DOK.: Besina aldea (1677, LUA-K 4-25); Becinaldea (1823, Prot. 15, 114 or.); Vecinialde (1847, Hipo. 1, 65 or.); Vecinealdea (1853, Hipo. 1, 177 or.); Vicinialde (1858, Hipo. 2, 92 or.); Vecinaldea (1860, Hipo. 2, 138 or.); Vecinale (1862, Hipo. 2, 200 or.); Betcinialde, Vecinale de Urrunaga (1884, D.2293-1).

DESK.: Urrunaga, Legutio eta Goiain herrien eremua. Gaur egun urtegiak estalia.

45. BEZINA IBARRA

EBAK.: Betxibérra, Betxibárria.

DOK.: Beçiaaybarra (1593, LUA-K 5-4); Be-
ciaybarra (1622, Prot. 7, 54 or.);
Bezina ybarra, Becinaybarra, Beçiña
ybarra (1638, Prot. 11, 33, 36 eta 99
or.); Besina ybarra (1677, LUA-K 4-25);
Besiybarra (1692, LUA-K 3-16); Bechi-
barra (1833, Prot. 13B, 137 or.); Be-
cibarra (1837, Prot. 14B, 109 or.);
Besivarra (1884, D.2293-1); Bisibarra,
Bechivarra (1894, D.2291-1).

DESK.: Urrunagatik Legutiora zihoan bidarria
ren eta Legutiotik zetorren errekaren
arteko ibarra. Gaur egun Urtegiak es-
taltzen du.

46. BIDABIARTEA

DOK.: Bidaviarte (1638, Prot. 11, 10 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

47. BIDEBEGANA

DOK.: Bidebegana (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna.

48. BIDESENDA

DOK.: Videsenda (1849, Hipo. 1, 88 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

49. BILERLEBIDEA

EBAK.: Billérlebiriã.

OHAR.: Ik. CAMINO DE VILLARREAL.

50. BIZKARBEA

EBAK.: Biskerbéa, Biskérbeà.

DOK.: Viscarbea (1843, Hipo. 1, 24 or.);

Vizcarvea (1857, Hipo. 2, 75 or.);

Visquerbea (1862, Hipo. 2, 187 or.).

DESK.: AXELIBAR ondoan dagoen zelai zabal
bat.

51. BIZKARDIA

DOK.: Vizcardia (1851, Hipo. 1, 113 or.).

OHAR.: URBINABIDEA ingiruan bide zegoen.

52. BIZKARGANA

DOK.: Bizcargana (1593, LUA-K 5-4, 48 or.);

Biscargana (1692, LUA-K 3-16); Vizquer-
gana (1849, Hipo. 1, 96 or.).

OHAR.: Ezezaguna. ITURZARRA (UB.) inguruan.

53. BUZTINABEA

EBAK.: Bustiñapéa, Bustíñapeà.

DOK.: Buztinabe (1593, LUA-K 5-4 88 or.);
Bustinabea (1681, LUA-K 5-11); Busti-
nebea (1847, Hipo. 1, 68 or.).

DESK.: "marzena", "heredad", "barrio". Urru
nagatik hegoalderantz, ibaiaren ezkeral
dean dagoen landa luze bat. PADUREA
ondoan.

54. BUZTINALDEA

DOK.: Bustinaldea (1862, Hipo. 2, 241 or.).

OHAR.: Ezezaguna. BUZTINABEA-tik GOIKOURIA-
rantzeko zatian kokatua.

55. CAMINO DE ARTZA

DOK.: Camino Real de Arça (1599, Prot. 4,
49 or.).

OHAR.: ARTZA-ra zeraman bidea. Gaur egun de
sagertua.

56. CAMINO DE BERGARA

EBAK.: Kamíno de Bergára.

OHAR.: Ik. BERGARA BIDEA.

57. CAMINO DE BETOLAZA

EBAK.: Kamino de Betoláca.

DOK.: Camino de Betolaza (1894, D.2291-1).

DESK.: Batolazarako bidean dauden soro bazu izendatzeko erabilitako toki-izena.

Baita bidea bera ere.

OHAR.: Ik. BETOLAZARABIDEA.

58. CAMINO DE GOJAIN

EBAK.: Kamino de Gojain, Karretéra de Gojain.

DOK.: Camino de Urrunaga a Gojain (1682, LUA-K 5-20); Carretera de Gojain (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ik. GOIAINBIDEA.

59. CAMINO DE LA FUENTE

DOK.: Camino de la fuente (1884, D.2293-1).

DESK.: GALBARAIN-go iturrira doan bidea.

60. CAMINO DE NAFARRATE

EBAK.: Kamino de Nafarráte.

DOK.: Camino Real de Nafarrate a Urrunaga (1675, LUA-K 3-35); Camino de Nafarrate (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ik. NAFARRATEBIDEA.

61. CAMINO DE URBINA

EBAK.: Kamíno de Urbína.

DOK.: Camino que ban a Urvyna (1599, Prot. 4, 38 or.); Camino de Urbina (1858, Hipo. 2, 83 or.).

OHAR.: Ik. URBINARABIDEA.

62. CAMINO DE VILLARREAL

EBAK.: Kamíno de Billarreál.

DOK.: Camino Villareal (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ik. BILERLEBIDEA.

63. CARRETERA DE

OHAR.: Ik. Urbinako CARRETERA DE.

64. DETRAS DE LA IGLESIA

DOK.: Detras de la Yglesia (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ik. EL(E)IZOSTEA.

65. ELEJALDEA

OHAR.: Ik. EL(E)IZALDEA.

66. EL(E)IZALDEA

EBAK.: Elisaldéa, Elísaldiè,

DOK.: Helexalde (1593, LUA-K 5-4, 79 or.);

Elexaldea (1823, Prot. 15, 71 or.);
Elesaldea (1837, Prot. 14B, 67 or.);
Elejaldea (1844, Hipo. 1, 35 or.);
Elegaldea (1849, Hipo. 1, 96 or.);
Elisaldea, Elizalde (1855 eta 1857
 Hipo. 2, 14 eta 53 or.).

DESK.: "barrio"; eliza ondoko auzoa. Berta
 koek toki hori horrela izendatu arren,
 ez dago erabat garbi jatorrizko toki
 berbera ote den, dokumentuen arauera,
 eliza, baseliza eta hilerria biltzen
 bait ziren inguru hartan. Zalantzatan
 gelditzen da, bestalde, Elizaldea eta
 Elejaldea toki bera adierzteko erabil
 tzen ziren toponimoak zirenentz.

67. EL(E) IZALDEKO BARRERA

EBAK.: Elisaldekò barrériè.

DESK.: EL(E) IZALDEA auzoaren hegoaldean
 omen zegoen.

68. EL(E) IZOSTEA

DOK.: Elejaostea (1861, Hipo. 2, 161 or.);
(H)elesoste(a) (1884, D.2293-1); Eli-
sostea (1894, D.2291-1).

OHAR.: Eliza osteko eremua. Gaur egun toki-
izen ezezaguna.

69. ELEIZPEA

EBAK.: Eléspeà, Elespéa.

DOK.: Helexpeea (1593, LUA-K 5-4, 88 or.);
Elespea (1853, Hipo. 1, 152 or.); Les-
pea (1884, D.2293-1); Eleispea (1894,
D.2291-1).

DESK.: Urbinako bidearen ezker aldean dagoen
zelaia, Elizaren parean gutxi gora-behe
ra.

OHAR.: Beste izen bat agertzen da zenbaite
tan: "Elespea ó Sendacosolo" (Hipo. 1).

70. ELE(I)ZPEGANA

DOK.: Elespegana (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ik. ELEIZPEA.

71. ELORRIO

DOK.: Heredades de elorrio (1682, LUA-K
5-20; 1846, Hipo. 1, 60 or.).

OHAR.: Izen horretaz leku askotako tokiak
adierazten bide ziren. Ik. ELORRIOSOLO.

72. ELORRIOSOLO

DOK.: Elorriosolo (1854, Hipo. 1, 189 or.).

OHAR.: Honek ere, aurrekoak bezala, zenbait tokiri ematen zion izena. Horra hor, adibidez, LETXAGA, MUGANDIPEA eta SAGARMINAGA toki-izenen ondoan agertu ohi den leloa: "alinda ... con la lla mada Elorriosolo".

73. ERROTABARRI

EBAK.: Errótabarrî, Errotabárri.

DOK.: Errotabarri (1836, Prot. 14A, 75 or.; 1852, LUA-L 42-19).

DESK.: Urtegiak estalitako errota.

OHAR.: Behin baino gehiagotan "Errotabarri ó Becibarra" agertzen da.

74. ERROTABURUETA

EBAK.: Errótaburueta, Errotaburuéta.

DOK.: Errotaburueta (1862, Hipo. 2, 202 or.); Herrotaburueta (1884, D.2293-1).

DESK.: Urperatuta. Ik. BASABARREN.

75. ESTRADAKOSOLO

DOK.: Estradacosolo (1884, D.2293-1).

OHAR.: Gaur egun ezezaguna.

76. ESTRADAKO SOLOGAIN

DOK.: Estradaco sologain (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ezezaguna.

77. ETXAOSTEA

DOK.: Echaustea (1862, Hipo. 2, 231 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

78. ETXAOSTEA ORTUONDOA

DOK.: Echaostea ortuondoa (1638, Prot. 11,
38 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

79. ETXAOSTEKO PERRAIA

DOK.: Echaosteco perraia (1638, Prot. 11,
185 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Hala ere, badirudi Goiaing
go iturrirantz eta herri bereko GALBA-
RAIN tokira daramaten bideen artean
kokatzen zela.

80. EZKIORPO

EBAK.: Ekitxórpo, Ikitxórpo, Kitxórpo.

DOK.: Esquisorpo, Equisorpo (1859, Hipo. 2,

118, eta 123 or.); Equichorpo, Hequi-
sorpo (1884, D.2293-1).

DESK.: Nafarrateko bide zaharraren eskuinal
dean nabarmentzen den toki altua. (H)A
RANKO-tik gora.

81. GALBARAIN

EBAK.: Galbarain.

DOK.: Galbarain (1638, Prot. 11, 185 or.);
Gabarrain, Galbarrain (1678, LUA-K 2-
5); Galbarain, Galvarein (1884, D.2293-
1).

DESK.: Goiaingo basoa. Zati bat Urrunaga
barnean lekutzen da.

82. GALBARAINBIDEA

DOK.: Galbarainbidea (1638, Prot. 11, 10
or.).

OHAR.: GALBARAIN-a daraman bidea.

83. GALBARAINGANA

DOK.: Galbarayngana (1590, Prot. 1, 54 or.;
1593, LUA-K 5-4, 92 or.); Galbarrain
gana (1678, LUA-K 2-5).

DESK.: Batez ere Goiaingo lur batzu adieraz
teko erabilia. Urrunagako mugan.

84. GANEKO IBARRA

DOK.: Ganecoybarra (1598, Prot. 3, 56 or.);
Ganeco ybarra (1624, Prot. 8, 68 or.).

OHAR.: Ezezaguna erabat. "Camyno sendero
 que ban a Va Rreal" inguruan zegoen.
 Gaur egun urtegia dagoen lekuan, be-
 raz.

85. GANGUREN

DOK.: Ganguren (1593, LUA-K 5-4, 57 or.).

OHAR.: Erabat ezezaguna.

86. GOIAIN AGIRRE

DOK.: Gojainaguirre, Gojain aguerre (1638,
 Prot. 11, 32 eta 46 or.); Goxain aguirre
 (1677, LUA-K 4-25); Goyan-aguerre (1847,
 Hipo. 1, 70 or.); Ojaiñaguirre (1850,
 Hipo. 1, 101 or.); Goyenigarra, Goiña-
garra (1884, D.2293-1).

OHAR.: Badirudi Urrunagatik Goiaingo bidea-
 ren ezker aldean zegoen zelai aldapa-
 tsuari deitzen ziotela horrela. GALBA-
 RAINGANA ondoan.

87. GOIAINAGUA

DOK.: Gojainagua (1846, Hipo. 1, 60 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

88. GOIAINBIDE

DOK.: Gojainvide (1848, Hipo. 1, 83 or.);

Gojambide (1857, Hipo. 2, 51 or.);

Goyainbidea (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ik. CAMINO DE GOJAIN.

89. GOIKOURIA

DOK.: Goicouria (1862, Hipo. 2, 241 or.);

Goicuria (1882, D.383-8).

OHAR.: Urrunagako auzoa.

90. GOIMENDIPEA

DOK.: Goimendipea (1884, D.2293-1).

91. HEARIGANA

DOK.: Hearigana (1593, LUA-K 5-4, 42 or.;

1638, Prot. 11, 46 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Ik. INARIGANA.

92. HEARI OSTEA

DOK.: Heari ostea (1593, LUA-K 5-4, 42 or.);

Hear ostea (1622, Prot. 7, 54 or.);

Heariosteas (1624, Prot. 8, 68 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Ik. INARIOSTEA.

93. HEXORIGANA

DOK.: Hexorigana (1619, Prot. 6, 78 or.).

OHAR.: Ezezaguna. HEARIGANA-ren aldakia ote?.

94. IBAIZA(HA)RRA

DOK.: Ybaisarra (1599, Prot. 4, 98 or.);

Ybaizarra (1682, LUA-K 5-20).

OHAR.: "rio de Bezina que por otro nombre llaman Ybaizarra". Garbi dago, beraz, zein erreka den.

95. IBAREGOA

DOK.: Ybaregoa (1598, Prot. 3, 56 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

96. IBETAGOIA

DOK.: Ybetagoya (1844, Hipo. 1, 41 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

97. IBETAOA

EBAK.: Ibitáua, Ibitába.

DOK.: Ybetao (1823, Prot. 15, 35 or.);
Ivitao (1861, Hipo. 2, 174 or.); Ebi-
taua, Ybitaua (1884, D.2293-1); Ybetaoa,
Ybitabua (1894, D.2291-1).

DESK.: Santa Ezgrazia ibaiaren eskuinaldean,
 PADUREA-ren parean dagoen sartune an-
 tzeko bat. Zelai bat.

98. ILAUNSOLO

DOK.: Ilaunsolo (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna.

99. INARIGANA

EBAK.: Iñerigána.

DOK.: Ynarigana (1677, LUA-K 2-2); Yarigana
 (1678, LUA-K 2-2); Ianarigana (1681,
 LUA-K 5-11); Ynarrigana (1682, LUA-K
 5-20); Minerigaña (1832, Prot. 13A,
 143 or.); Ynerigana (1844, Hipo. 1, 35
 or.); Yñerigana (1858, Hipo. 2, 80 or.);
Ynerigan, Iñerigán, Iñerigaña (1884,
 D.2293-1).

DESK.: KURRUA-ren Iparraldean dagoen lepoa.
 Urtegiraino iristen da.

100. INARIOSTEA

EBAK.: Iñerostéa.

DOK.: Ynaria ostea (1682, LUA-K 5-20);

Ynari ostea (1683, LUA-K 5-10); Ynerioste
rioste (1747, Hipo. 1, 70 or.); Ynarr
rrioste (1858, Hipo. 2, 83 or.); Iñe
rostea, Yñerrioste, Ierrioste, Iriñu
este (1884, D.2293-1).

DESK.: INARIGANA-ren iparraldera zegoen
lur eremua. Gaur egun urtegiak estal-
tzen du.

101. INARRA

DOK.: Ynarra (1598, Prot. 3, 56 or.); Yne
rra (1843, Hipo. 1, 28 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Nafarrate aldean, agian.

102. IÑETXAUSIGANA

DOK.: Iñechausigana (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna.

103. IPERRAGERRA

DOK.: Yperaguer (1851, Hipo. 1, 113 or.);

Yperraguér
ra, Yparagarra, Iparragarra,
Yper agire (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna. Dokumentuen arauera, SA
 GUATE-tik hegoaldera zegoen.

104. IPERRIGALDEA

EBAK.: Iperrigaldéa.

OHAR.: Bertako bizilagunek txikitan entzun
 dako toki-izena; gaur egun ezezaguna
 eta koka ezinezkoa. Ik. IPERRAGERRA.

105. IRORIGANA

DOK.: Irorigana (1682; LUA-K 5-20).

OHAR.: Ezezaguna. Ik. INARIGANA.

106. ISLA, LA

EBAK.: La ísla.

DOK.: La ysla (1837, Prot. 14B, 103 or.).

DESK.: Gaur egun urak estali ez baina in-
 gurutzen duen muino txiki bati ematen
 zaion izena, urtegia beteta dagoenean
 irla baten irudia ematen bait du. Le-
 hen SAGARMINAGA deitzen zitzaion toki
 honi.

Ez dirudi dokumentuan agertzen den
 izenak gaurko izenarekin zerikusirik
 duenik. Hala ere, inguru haietan bide
 zegoen.

107. ITURBURUA

DOK.: Yturburua (1846, Hipo. 1, 55 or.);

Yturriburu (1848, Hipo. 1, 79 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

108. ITURRALDEA

EBAK.: Itúrrialdè, Iturriálde.

DOK.: Yturaldea (1590, Prot. 1, 79 or.);

Yturaldea (1638, Prot. 11, 54 or.);

Yturrialde (1843, Hipo. 1, 21 or.).

DESK.: LAKUIBARRA-n dagoen iturriaren in-
guruak. Erreka ondoa.

109. ITURRIA, ALTO

DOK.: Alto Yturria (1682, LUA-K 5-20).

OHAR.: Gaur egun ezezaguna izan arren, ba-
dirudi lehenago ITURRIMENDIETA adieraz
teko erabili ohi zela. Ik. ITURRIGANA.

110. ITURRIGANA

DOK.: Yturrigana (1848, Hipo. 1, 77 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Ik. Alto ITURRIA eta ITU
RRIMENDIETA.

111. ITURRIMENDIETA

DOK.: Yturrimendieta, alto de (1724, LUA-L
42-14).

OHAR.: Ezezaguna. Betolaza eta Urrunaga
arteko mugan zegoen, MENDIETA aldean
hain zuzen. Ik. ITURRIA eta ITURRIGANA.

112. JARALDUI OSTEA

OHAR.: Ik. TXARALOSTEA.

113. JAUNSOLO

DOK.: Yaunsolo (1831, Prot. 13, 81 or.);
Jaunsolo (1843, Hipo. 1, 24 or.);
Gaunsolo (1894, D.2291-1).

114. JAUSOLOPEA

DOK.: Jausolopea (1833, Prot. 13B, 137 or.).
OHAR.: Ezezaguna.

115. KAROBIZA(HA)R

DOK.: Carobisar (1884, D.2293-1).
OHAR.: Ezezaguna.

116. KATALINSOLO

DOK.: Catalinsolo (1857, Hipo. 2, 75 or.

1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna.

117. KEREXALDEA

DOK.: Querexaldea (1593, LUA-K 5-4, 58 or.).

OHAR.: Erabat ezezaguna.

118. KOMUNEA

DOK.: Comunea (1853, Hipo. 1, 155 or.).

OHAR.: ARRIPAUSUETA-ren ordez erabili izan den beste toki-izen bat. Urrunaga eta Urbina arteko mugan.

119. KORROKOSOLOA

DOK.: Corrocosoloa, puente, heredad (1847, Hipo. 1, 70 or.).

OHAR.: Ezezaguna izan arren, garbi dago INARIOSTEA-n zegoela. Antza denez, BEZINA-tik zetorren erreka toaren inguruan.

120. KORTABEA

EBAK.: Kortabéa, Kortábea.

DOK.: Cortabea (1599, Prot. 4, 38 or.; 1843, Hipo. 1, 24 or.).

DESK.: Zatirik gehiena Goiaingoa bada ere,
Urrunagako mugan aurkitzen den tokia
dugu hau; TXARALOSTEA beste izenez.

121. KRISTOBALSOLO

DOK.: Cristobal solo (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna.

122. KURRUA

EBAK.: Kurrúa.

DOK.: Currua (1593, LUA-K 5-4, 51 or.;
1835, Prot. 14, 94 or.).

DESK.: Urrunagatik iparraldera hedatzen
den mendiska.

123. KURTZALDEA

EBAK.: Kurtzaldéa, Kurcaldéa, Krucaldéa,
Kurtzáldeã.

DOK.: Cruzaldea (1833, Prot. 13B, 90 or.);
Culsaldea (1849, Hipo. 1, 96 or.);
Cursaldea, barrio (1851, Hipo. 1, 113
or.); Curzaldea (1862, Hipo. 2, 243
or.); Crusaldea (1884, D.2293-1).

DESK.: Dikearen ondoko etxeak eta lurrak.
Herriaren iparraldean.

124. KURTZEPEA URBINA

DOK.: Curzapea Urvina (1884, D.2293-1);

Cursapea Urbina (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ik. KURTZEPEA (UB.)

125. LAKUA

EBAK.: Láku.

DOK.: Lacua, Lecua (1837, Prot. 14B, 102
or.).

DESK.: Urtegiak estalitako tokia.

126. LAKUIBARRA

EBAK.: Lakíber, Lakibárra.

DOK.: Lacuybarra (1593, LUA-K 5-4, 12 or.);

Lacuybar (1593, LUA-K 5-4, 79 or.;

1598, Prot. 3, 56 or.; 1599, Prot. 4,

91 or.); Laquibarra (1837, Prot. 14B,

96 or.); Lacoibarra (1843, Hipo. 1,

24 or.); Lacoibar (1846, Hipo. 1, 55

or.); Lequibarra, La cuibarra (1862,

Hipo. 2, 235 eta 258 or.); Laquibarre

(1894, D.2291-1).

DESK.: Urrunagako herritik dikeraino erreka
ondoan dagoen zelai luzea edota ibarra.

OHAR.: Behin behintzat "San Miguel-aldea ó
Lacoibar" agertzen da.

127. LAMIKOSARRA

EBAK.: Lamíkosarrà, Lamikosárra.

OHAR.: Ik. ARMOKIZARRA.

128. LANDERARI

EBAK.: Landerári.

DESK.: Urtegiak estalitako soroa.

129. LARRA

DOK.: La Larra (1852, Hipo. 1, 138 or.);

Larrea (1855, Hipo. 2, 6 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

130. LARRA (HA)UNDI

EBAK.: Larráundi, Larrándi.

DESK.: ARTZAOSTEA-ri ematen omen zaion ize
na. Bertako larre bat.

131. LARRABURUA

DOK.: Larraburua (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna.

132. LARRAERREA

EBAK.: Larraréa.

DOK.: Larraerrea (1823, Prot. 15, 89 or.;

1837, Prot. 14B, 23 or.); Larrere (1833, Prot. 13B, 16 or.); Larerrea (1843, Hipo. 1, 20 or.); Lara errea, Larrarrea, Lara-rea (1850, Hipo. 1, 102, 105 eta 106 or.); Laraerria (1855, Hipo. 2, 23 or.); Larrerria (1856, Hipo. 2, 35 or.); Larra-rea (1860, Hipo. 2, 149 or.); Larrerrea (1862, Hipo. 2, 187 or.).

DESK.: Urtegiak estalitako tokia. SAGARMINA-GABIDEA inguruan kokatua.

133. LARR(A)ER(RE)A BARRI

EBAK.: Larrérabarrì, Larrerabárri.

DESK.: Urtegiak estalia.

134. LARR(A)ERREA NUEVA

DOK.: Larrarea-Nueva (1858, Hipo. 2, 95 or.);

Lararrea nueva (1862, Hipo. 2, 202 or.);

Larrarrea Nueva, Larrera Nueva (1894,

D.2291-1).

135. LARR(A)ERREA VIEJA

DOK.: Larerrea vieja (1862, Hipo. 2, 202 or.);

Larrerrea Bieja (1884, D.2293-1); Larrerrea

bieja, Larrarea bieja (1894, D.2291-1).

136. LARR(A)ER(RE)A ZA(HA)RRA

EBAK.: Larrerasárra.

DESK.: Urtegiak estalitako tokia.

137. LARREA NUEVA

DOK.: Larreanueva (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ezezaguna.

138. LARREA VIEJA

DOK.: Larrea bieja (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ezezaguna.

139. LETXAGA

EBAK.: Letxága.DOK.: Lechaga (1598, Prot. 3, 11 or.; 1677
LUA-K 2-2).DESK.: Nafarrate eta Urbinako mugan dagoen
toki menditsua; hain zuzen ere, urte-
giaren hegian.

140. LETXAGAISBEA

DOK.: Le chagaisbea (1681, LUA-K 5-11).

OHAR.: Ezezaguna.

141. LETXAGANA

EBAK.: Letxagána.DOK.: Lechagan, Lechagana (1884, D.2293-1).

DESK.: LATXAGA-n dagoen tontorra.

142. LETXAGAOSTEA

EBAK.: Letxabóste, Letxabostéa.

DOK.: Lechaga hostea, Laechagaostea (1593, LUA-K 5-4, 57 eta 80 or.); Lechagaostea (1598, Prot. 3, 56 or.); Lechagaoste (1619, Prot. 6, 46 or.); Lechaostea (1836, Prot. 14B, 5 or.); Lehostea (1861, Hipo. 2, 173 or.); Lechabostea (1884, D.2293-1).

DESK.: (H)ARANKOA-tik LETXAGA-raino doan lurrazal aldapatsua.

143. LETXAURREA

DOK.: Lechaurrea-Chirla (1939, LUA-L 41-19).

OHAR.: Entzuna zuten arren, elkarrizketatuek ez omen dute inoiz erabili toki-izen hori. Ik. TXIRLA.

144. LOPELANDA

DOK.: Lopelanda (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna.

145. LUERREA

EBAK.: Lugerréa.

DOK.: Luerrea (1593, LUA-K 5-4, 56 or.;
1638, Prot. 11, 32 or.); Luerria (1677,
LUA-K 4-25); Luguerra, Lugera, Lugarra
(1884, D.2293-1); Lugerrea, Luguerra
(1894, D.2291-1).

DESK.: BETOLAZARABIDEA-ren eskuinaldean
dauden baso eta zelai batzu.

146. LUERREGANA

DOK.: Luerregana (1724, LUA-L 42-14).

OHAR.: Ezezaguna. Ik. LUERREA.

147. LUGARIO

DOK.: Lugario (1837, Prot. 14B, 67 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

148. LUKU BIDEETA

DOK.: Luco bideeta (1692, LUA-K 3-16).

OHAR.: Ezezaguna. Badirudi MENDIETA zehar-
katzen zuen bidea adierazten zuela.

149. MAKATZEA

EBAK.: Makatzéa.

DESK.: MUGANDIPEA ondoan zegoen lur eremua.

OHAR.: Ik. MAKATZEKO SOLOA.

150. MAKATZEKOA

DOK.: Macasecua (1884, D.2293-1); Macaseco (1894, D.2291-1).

OHAR.: MAKATZEKO SOLOA ote da?.

151. MAKATZEKO SOLOA

DOK.: Macacecosoloa (1861, Hipo. 2, 174 or.); Macaseco solo (1884, D.2293-1).

OHAR.: Erabilia ez bada ere, MAKATZEA-k adierazten duen toki bera izendatzen bide zuen. URBINARA BIDEA-n lekutua.

152. MANDAZAIN BIDE

DOK.: Mandasain bide (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ezezaguna.

153. MARIA ANDRES BASO

DOK.: Maria andres baso (1823, Prot. 15, 61 or.); Mariandobasoa (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ez omen da erabiltzen.

154. MARIANDREBASOPEA

EBAK.: Mariandrobaspéa.

DOK.: Maria-Andresbasopea (1833, Prot. 13B, 34 or.); Mariandresbasopea (1846, Hipo. 1, 59 or.); Maria Andres basapea (1855, Hipo. 2, 6 or.); Mariandrosbasopea (1858, Hipo. 2, 80 or.); Mandrobaspéa (1884, D.2293-1); Mariandro basopea (1894, D.2291-1).

OHAR.: Urtegiak estalitako basoa.

155. MARIA ANDRESPEA

DOK.: Mariandrespea, Maria Andrespea, Man-
drospea, Mariandrospea (1884, D.2293-1).

156. MASEKO

DOK.: Maseco (1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna.

157. MAURUIBAIA

OHAR.: Ik. Urbinako MAURUIBAIA.

158. MAURUIBAIAGIRREA

OHAR.: Ik. Urbinako MAURUIBAIAGIRREA.

159. MENDIETA

OHAR.: Ik. Urbinako MENDIETA.

160. MENDIETAGANA

DOK.: Mendietagana (1884, D.2293-1).

161. MINTEGI

EBAK.: Mintégi.

DOK.: Mintegui (1894, D.2291-1).

DESK.: Urtegiak estalitako tokia.

162. MOJONERA DE URBINA

EBAK.: Mojón de Urbina, Mojonera de Urbina.

DOK.: Mojonera de Urbina (1884, D.2293-1).

DESK.: TXARALDUIA-n dagoen mugarria adieraz ten duen toponimoa.

163. MUGAGANA

DOK.: Mugagana (1858, Hipo. 2, 80 or.).

OHAR.: Ezezaguna. PADUREA-n zegoen soro bat.

164. MUGANDIGANA

EBAK.: Mugándiganà, Mugandigána.

DESK.: SAN BARTOLOME ALDE-ko soroa.

165. MUGANDIPEA

EBAK.: Mugándipeà, Mugandipéa.

DOK.: Mugandipea (1835, Prot. 14 61 or.;
1857, Hipo. 2, 75 or.); Bugandipea,
Mugaindipea (1884, D.2293-1).

DESK.: Urrunagatik ateratzean Urbinako bi-
dearen eskuinaldean dagoen zelaia.

ELORRIOSOLO izeneko baten ondoan.

166. MUKIZA(HA)R

DOK.: Muquizar (1850, Hipo. 1, 102 or.).

OHAR.: ARMOKIZAHAR ote?.

167. MUNAPEA

DOK.: Munapea (1823, Prot. 15, 50 or.).

OHAR.: Entzuna zutela iruditu arren, ez zu
ten ondo lekutzen jakin. (H)ARANKOA-ren
beste izen bat. "Arancoa y por otro nom
bre Munapea".

168. MUSKURIO

DOK.: Muscurio (1590, Prot. 1, 79 or.; 1599,
Prot. 4, 38 or.; 1855, Hipo. 2, 14 or.);
Mucurio (1683, LUA-K 5-10); Muqurio
(1851, Hipo. 1, 113 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Antza denez, Urbina, Goi
ain eta Urrunaga elkartzen ziren toki
an zegoen.

169. NAFARRATE BIDEA

EBAK.: Nafárratekò biríe.

DOK.: Nafarrate videá (1860, Hipo. 2, 144
or.).

OHAR.: Ik. CAMINO DE NAFARRATE.

170. NARRUTXOSOLO

DOK.: Narruchosolo (1861, Hipo. 2, 180 or.).

OHAR.: Ezezaguna erabat. BEZINA IBARRA-ko
sola.

171. NASA

EBAK.: Nása.

DOK.: Nazea (1675, LUA-K 3-35) "monte";
Nasa (1682, LUA-K 5-20; 1852, LUA-L
42-19); Lanasa, La Nasa (1862, Hipo.
2, 229 eta 271 or.).

DESK.: Urtegiaren dikea dagoen lekuan has-
ten zen basoa; LAKUIBARRA-ren ondoan.

172. PADURAKO ARRIPASUEK

EBAK.: Padúrako arrípasuèk.

OHAR.: Ik. (H)ARRIPAUSUETA.

173. PADUREA

OHAR.: Ik. PADUREA (UB.).

174. PADUREA KURTZEPEA

DOK.: Padurea Cursepea (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ik. KURTZEPEA (UB.).

175. PAGOARRO

EBAK.: Pagoárro.

OHAR.: Urtegiak estalitako tokia.

176. PANTANO

EBAK.: Pantáno.DESK.: Urtegiari ematen zaion gaztelerazko
izena.

177. PASOS DE BETOLAZABIDEA, LOS

DOK.: Los pasos de Betolazabidea (1851, Hi
po. 1, 118 or.).

OHAR.: Ik. PASOS DE PADUREA.

178. PASOS DE PADUREA, LOS

EBAK.: Los pasos de Paduréa.

DOK.: Los Pasos (1856, Hipo. 2, 50 or.);
Paso del rio (1884, D.2293-1); Pasos
del rio Padurea, Los pasos (1894, D.
 2291-1).

OHAR.: (H)ARRIPAUSUETA izendatzeko beste
 toponimo bat.

179. PERRANTXOA

DOK.: Perranchoa (1638, Prot. 11, 10 or.;
 1884, D.2293-1).

OHAR.: Erabat ezezaguna.

180. PERRARTEA

DOK.: Perrartea (1882, D.383-8); Perartea
 (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ezezaguna.

181. PETRILIS

DOK.: Petrilis (1836, Prot. 14A, 14 or.;
 1852, LUA=L 42-19).

OHAR.: Gaur egun ezezaguna izan arren, Bi-
 lerleko mugan ondoan zegoena badakigu.

182. PORTUA

DOK.: Portua (1638, Prot. 11, 46 or.).

OHAR.: Ezezaguna.

183. PORTUKOLANDA

EBAK.: Portukolánda.

DOK.: (Zaroa) Portucolanca (1761, LUA-L 3-2);

Portucolanda (1849, Hipo. 1, 95 or.).

DESK.: KURTZALDEA eta dikearen arteko landa.

184. PORTUKO SOLOA

EBAK.: Portukosolóa.

DOK.: Portuco soloa (1683, LUA-K 5-10);

Portucosolo (1833, Prot. 13B, 137 or.);

Portocosolo (1884, D.2293-1).

DESK.: Urtegiak estalia. BAZINA IBARRA-n zegoen solo hau, Bilerlerako bideez inguraturik.

185. PRESA

EBAK.: La présa.

DOK.: Presa de Urrunaga (1778, LUA-K 11).

OHAR.: Urrunagara zetozen erreka nagusiak elkartzen ziren tokian eraikia. Zenbait

metro beherago egin zen gero urtegia-
ren dikea.

186. PRESAGANA

EBAK.: Presagána.

DOK.: Presagana (1939, LUA-L 41-19).

DESK.: KURTZALDEA-tik gora dagoen lur zati
bat.

OHAR.: Noizpait erabilia izan bada ere, ez
dirudi hedatuegia denik.

187. PRESAMUGA

EBAK.: Presamúga.

DOK.: Presasmuguea (1638, Prot. 11, 54 or.);
Presa muga, Presasmuga (1884, D.2293-1).

DESK.: Urtegiak estalitako tokia, antza denez.
Elkarrizketatuek zalantzak dituzte ze-
hazki lekutzeko.

OHAR.: Ik. PRESAMUGAGANA.

188. PRESAMUGAGANA

DOK.: Presamugagana (1838, Prot. 14D, 89 or.).

OHAR.: Ezezaguna izan arren, honako laguntza
hau aurki daiteke aipatu dokumentuan:
"Urruntostea ó Presamugagana".

189. PRESAMUNA

EBAK.: Presamúna.

DOK.: Presamuna (1884, D.2293-1).

DESK.: LAKUIBARRA-tik ekialderantz dagoen toki aldapatsua. Hala ere, dikea egin zutenetik horko pasaia ere aldatuta dagoela esan behar da.

190. PRESIKA, LA

EBAK.: La presika.

OHAR.: PRESAMUGA-ren beste izena.

191. PUENTE

EBAK.: El puénte.

DOK.: Puente del rio mayor (1823, Prot. 15, 57 or.); Puente de Urrunaga (1878, LUA-K 4-17).

DESK.: Urrunagatik Nafarratera joateko zeharkatu behar den zubia. ZUBIALDEA-n kokatua.

192. PUENTE DE PIEDRA

DOK.: Puente de piedra (1836, Prot. 14A, 79 or.).

DESK.: ARTZA-n zegoen zubia eta gaur egun

urtegiak estaltzen duena. Inguruak.

193. RAIN

EBAK.: La ráin, ráin.

DOK.: Rain (1894, D.2291-1).

OHAR.: Edozein larraini ematen dioten izena.

194. SAGARMINAGA

EBAK.: Sagarmináguá, Sagármíñ.

DOK.: Sagarminaga (1590, Prot. 1, 54 or.;
1593, LUA-K 5-4, 8 or.); Sagarmina
(1593, LUA-K 5-4, 9 or.); Sarraminaga
(1677, LUA-K 2-2); Sagarmináguá (1862,
Hipo. 2, 201 or.; 1894, D.2291-1);
Sagarmínaga (1884, D.2293-1).

DESK.: Gaur egun urak estaltzen duenez ge-
ro, ezin da inolako deskribapen zeha-
tzik eman. LA ISLA izendatutako tokia
lehengo SAGARMINAGA-n dago.

195. SAGARMINAGABIDEA

DOK.: Sagarminagabidea (1846, Hipo. 1, 55
or.).

OHAR.: Desagertua. LARREA ERREA lekuaren
hegoaldean aurkitzen zen.

196. SAGARMINAGAOSTEA

DOK.: Sagarminagaostea (1590, Prot. 1, 65 or.).

OHAR.: Goiain eta Urrunaga arteko mugan le kutua. Uretan desagertua.

197. SAGUATE

EBAK.: Saguetea.

DOK.: Saguete (1593, LUA-K 5-4, 56 or.; 1598, Prot. 3, 56 or.; 1678, LUA-K 2-5); Sagueta (1838, Prot. 14D, 54 or.); Sagüeta (1843, Hipo. 1, 24 or.; 1852, Hipo. 2, 75 or.); Sagüete (1846, Hipo. 1, 55 or.); Saguetea (1855, Hipo. 2, 8 or.); Sagüeta, Saguete, Zagüeta (1884, D.2293-1).

DESK.: SANTA LUZIA-tik MUGANDIPEA-rantz he datzen den zabalgunea.

198. SAKELUTXO

EBAK.: Sakelútxo.

OHAR.: SOROA aldean zegoen toki bat. Gaur egun urtegiak estalia.

199. SAKONA

DOK.: Sacona (1853, Hipo. 1, 177 or.; 1884, D.2293-1).

OHAR.: Ezezaguna forma huts horretan. Ik.
(H) ARANKOSAKONA.

200. SALUKAS SOLOA

DOK.: Salucas soloa (1593, LUA-K 5-4, 56 or.).

OHAR.: Goiaingo LUKAS SOLOA-ren aldakia dirudi. Hasieran SAN LUKAS SOLOA ote zen?.
URBINARA BIDEA-n aurkitzen zen.

201. SAN BARTOLOME

EBAK.: San Bartolomé, Samartolomé.

DOK.: San Bartolome (1599, Prot. 4, 90 or.; 1727, LUA-K 4-22); San Bartolomea, Samartolomé (1884, D.2293-1).

DESK.: Hilerria dagoen tokian zegoen baseliza.

OHAR.: 1875.ean erabat erreta geratu zen.

202. SAN BARTOLOME ALDEA

EBAK.: Samartolomaldéa, San Bartolomealdéa.

DOK.: San Bartolome aldea (1593, LUA-K 5-4, 56 or.; 1677, LUA-K 4-25); Bartoloméaldea

(1844, Hipo. 1, 35 or.); Samartolome aldea (1884, D.2293-1).

DESK.: Hilerritik hegoalderantz, hots, bide raino doan lur-zerrenda luzea.

203. SAN BARTOLOME ARRIBA

DOK.: San Bartolomé-arriba (1851, Hipo. 1, 113 or.).

OHAR.: Ezezaguna. Ik. SAN BARTOLOMEBURUA.

204. SAN BARTOLOMEBURUA

EBAK.: San Bartolomeburúa, Samártolomèburuà.

DOK.: San Bartolomeburua (1683, LUA-K 5-10).

OHAR.: Ezaguna egin bazitzaien ere, elkarriz ketatuek ez zuten kokatzen jakin.

205. SAN BARTOLOME OSTEA

DOK.: Sn. Bartolome ostea (1837, Prot. 14B, 52 or.; 1884, D.2293-1).

OHAR.: Toponimo hau ezezaguna bada ere, baseliza edota hilerriaren atzean koka daitekeela dirudi.

206. SAN JUAN DE URRUNAGA

EBAK.: San Juan.

DOK.: San Juan de Urrunaga (1598, Prot. 3, 40 or.); San Juan (kontsultaturiko dokumentu gahienetan).

DESK.: Urrunagako eliza nagusia.

207. SAN MIGEL

DOK.: San Miguel (1590, Prot. 1, 83 or.; 1593, LUA-K 5-4, 79 or.).

OHAR.: Baseliza desagertu baten izena. LAKU IBARRA-tik BEZINA IBARRA-rantz bide zegoen . Ik. SANTIAGO.

208. SAN MIGEL ALDEA

DOK.: San Miguel-aldea (1846, Hipo. 1, 55 or.).

OHAR.: "San Miguel-aldea ó Lacóibar". Ik. LAKU IBARRA.

209. SAN MIGEL ZA(HA)RRA

EBAK.: San Migel sárra, Samígelsarrà.

DOK.: San Miguel sarra (1849, Hipo. 1, 94 or.); San Miguel zarra (1855, Hipo. 2, 11 or.); Samigel sarra, Samiguel sarra (1884, D.2293-1).

OHAR.: Kokaezina. SANTIAGO.

210. SANTA ISABEL ALDEA

DOK.: Santa-Ysabel-aldea (1850, Hipo. 1, 105 or.).

OHAR.: Urrunagako toponimoa dela esan arren, eskribauaren akats bat izan zen antza denez, Urrunagan ez bait da Santa Isabel izenekorik aurkitzen.

211. SANTA LUZIA ALDEA

EBAK.: Santálusaldeà.

OHAR.: Ik. Urbinako SANTA LUZIA ALDEA. ZABALGANA beste izenez.

212. SANTA LUZIA AURRA

OHAR.: Ezezaguna. Ik. SANTA LUZIA AURREA.

213. SATA LUZI(A) BIDEA

DOK.: Santa Luzi bidea (1884, D.2293-1).

OHAR.: PADUREA-tik SANTA LUZIA izeneko basilizara zeraman bidea.

214. SANTA LUZIAOSTEA

DOK.: Sta. Luciaostea, Santa Luziostea (1884, D.2293-1).

OHAR.: Leku-izen hau gaur egun ez da erabiltzen.

215. SANTA LUZI(A)PEA

DOK.: Santaluzipea, Santalucipea (1884, D. 2293-1); Santa Luciapea, Santa Luciabea (1894, D.2291-1).

OHAR.: Ezezaguna.

216. SANTIAGO

DOK.: Santiago (1592, A.1, 76 or.); S.Tiago (1647, Idem.); Santiao (1741, Idem.).

OHAR.: "hermita", "piesa", "monte de". BEZINA-n kokatua, gaur egun urtegiak es taltzen du.

217. SANTIAGO ALDEA

DOK.: Santiago aldea (1849, Hipo. 1, 94 or.); Santiago alde (1854, Hipo. 1, 187 or.); Santiau aldea (1884, D. 2293-1).

OHAR.: Ezezaguna. BEZINA-rako bidean.

218. SANTIAGO ETA SAN MIGEL

DOK.: Santiago y San Miguel (1599, Prot. 4, 90 or.).

OHAR.: "hermita de". Ik. SAN MIGEL ZAHARRA eta SANTIAGO.

219. SANTUSOLO

